

2018

19.
zenbakia

BERROBI BERRI

BERROBIKO URTEKARIA





Ibai-Ondo etxea, 3 esk. Berrobi ☎ 649 813 665 / 619 405 260



- Eguneko menuak
- Menu bereziak
- Familia eta koadrilentzako bazkari eta afariak

☎ 943 672 828 • Leitza bidea, 21 · 20491 Belauntza



M A Y E N S A

MANDRILAK ESPIRALEAN

☎ 943 683 051 / 943 683 231 · Faxa: 943 683 345

20493 Berrobi

mayensa@mayensa.com

www.mayensa.com

non zer

- 5 Jaiotzak eta heriotzak
- 6 Julen Belaunzararen ibiliak
- 8 Udala mintzo
- 10 Berrobi plazaren bueltan
- 11 Urak dakarrena urak daroa
- 15 Kirol txokoa
- 20 Berrobiko zuhaitzen posterra
- 23 40 urte bidea eginez
- 28 Usarra baserria
- 32 Urtetik urtera
- 37 Idazlanak

BERROBIBERRI

Lantaldea:

Agurtzane Belaunzaran,
Begoña Olamusu, Bittor Madina,
Elena Berakoetxea, Igone Saldias,
Iker Elustondo, Iñigo Aurkia,
Maddi Dorronsoro, Erlantz Allur eta
Ramon Olasagasti.

Esker bereziak:

Esker bereziak aurtengoan Iñigo Ayerzari. Inguruko erroten gaineko artikuloa idazten egindako lanagatik.

Lege gordailua: SS-27 / 2000

Berrobin, 2018ko abendua



ARNASA HARTZEA BEZAIN NATURALA

Arnasa hartzea bezain berezkoa da gaur egun eskolan euskaraz irakastea. Baina adin batetik aurrerakoek, gaur egun 45 urtetik gora dituztenek, gogoan izango dute ez dela beti horrela izan. Lau hamarkada atzera eginez gero, Berrobiko eskolan ere, gaztelaniaz irakasten zuten irakasleek, Bittor iritsi zen arte. Berak ekarri zuen euskara eskolara, berak eman zion, hasiera hartan, arnasa gure hizkuntzari hezkuntzaren esparruan. Egunerokoa, lagunartean eta etxe giroan erabiltzen zen, baina eskolan ez, eta urrats handia izan zen hura. Hezkuntza eta hizkuntza lotzea. Gero etorri ziren Jone, Sebas, Joxema... Eta euskarak urrats handiak eman ditu Berrobiko eskolan, eta eskolak berak ere gorputz hartu du Berrobin. Berrogei urteren buruan, euskaraz hartzen du arnasa, natural, eraikin berrian, osasuntsu. Horregatik, egokia iruditu zaigu 40 urteko ibilbide honetan atzera begira jartzea, aitzindari haiei aitortza egitea eta urteurrena "ospakizun" bihurtzea.

Gai nagusi horrez gain, Iñigo Aiertzak lan ederra egin du herriko errotei buruz, "Urak dakarrena urak daroa" idatzian. Lerro artean, garai bateko errota zaharren lantu hori entzuten da oraindik. Usarre baserriaren historia ere jaso dugu, eta Usarreko seme Julen Belaunzararen ibiliak ere ekarri ditugu aurtengo alera. Oparitxoa ere bai: Berrobiko zuhaitzen inguruko posterra.

Euskaraldiaren arnasak luzaroan iraun dezan, har dezala euskarak arnasa, eskolan bezala eguneroko jardun guztietan, natural-natural.

Iturriza janaridenda


Jose M^a Goikoetxea, 24 · Berrobi
☎ 943 683 169



SORONEA

baserria eta denda ekologikoa

Letxuga kalea, 8 · Tolosa · & 943 016 868



IBARBURU

merkatutxea

Euskalherria, 51 · Ibarra




Ibai-Ondo etxea, 2 / esk. · 20493 Berrobi

☎ 943 683 112 / 619 405 260 Faxa: 943 683 112



Mara (2018/01/02)

Gurasoak:
Jesús Garrido Sánchez
Zuriñe Lorenzo Amiama



Josefa
Ansorena
Marticoarena

1927/01/04
2018/11/06



Lucía
Noble
Zabaleta

1942/01/06
2018/07/10



JULEN BELAUNZARAN:

“Bidaia prestatzea, bidaia egitea bezain ederra da”



Munduko mapari begira bizi da, baina etxerako bidea ongi baino hobeto daki. Bidaia batek beste bidaia bat dakarrela dio, honela Hegoameriketako bazterrak, mendi gailurrak, ibai, desertu eta hondartzak ezagutu ditu. Afrikan ere motorrean ibilia da. Aurten herrian hilabete batzuk pasa ondoren, beste amets bat egi bihurtzera abiatu zen berriro Amazonas kuttunera.

Aurtengo martxoan etxeratu zinen, baina denbora gutxi egin zenuen herrian. Bidaia plan bati ekin zenion berehala...

Bi urte eta erdi egin nituen Hegoameriketara eta etxera itzultzeko gogoarekin banuen. Bidaiaren azken txanpa Euskal Herrira begira egin nuen, baina etorri aurretik bidaia proiektu bat sortu zitzaidan. Amazonas ibaian (Brasilen) bi suitzar ezagutu nituen, beraiek egindako baltsa batean Napo ibaia nabigatu zuten Ekuadorretik.

Etxeko egonaldia bidaia prestatzeko aprobetxatu zenuen orduan?

Bidaia batek bestea dakar eta ideia hori burutzeko gogorekin etorri nintzen. Berrobin nengoela, bi suitzar hauekin kontaktuan jarri nintzen proiektuari forma eman nahian eta berriro Brasilerara itzuli nintzen.

2015ean lanean baimena hartuz geroztik, laugarren bidaia luzeari ekin diozu. Espiral baten modukoa al da bidaiariaren bizimodua?

Barrenak mugitu egiten ditu bidaia proiektu berri batean sartzeak, bizirik nagoela sentitzen naiz, batez ere bidaia prestatzen dudana bitartean ametsetan murgilduarazten nau, zer ote dagoen leku galdu horietan, nolakoa izango den paisaia, jendea... behin bertan zaudela irudikatzen zenuen horrek intentsitatea galtzen du batzuetan. Bidaia prestatzea, bidaia egitea bezain ederra da.

Bidaia prestatu eta amestu arren errealitatea bestelakoa izan da azken abentura honetan ezta?

Abuztuan Brasil eta Ekuador arteko ibai tarte merkatari-tza barku batean igo genuen neskalagunak eta nik. Behin Ekuadorrera iritsita, gure balsa eraikitzeari ekin genion, Biurri enea izenekoa, asmoa Napo ibaia jaistea zen Amazonas ibaia arte. Komunitateko bizi lagunek Ekuador eta Peru arteko ibai zatia motorrik gabe egitea gomendatu zigu-

ten, mugan arazoak izan genitzakeelako. Beraz, Ekuador eta Peru arteko zatia arraunez egiteko erakia hartu genuen. Ilusioz blai, ibaian behera atera ginen arraunean eta hirugarren egunean gure balsa ez atzera ez aurrera geratu zen, trabatuta. Laguntza eskatu genuen eta gure harridurarako Francisco de Arellanako suhiltzaile brigada etorri zen gu erreskatatzera. Arraunez nabigatzeko genuen zailtasuna ikusita eta legez nabigatzeko dokumentuak lortzeko jarri zizkiguten trabengatik, pena handiz baina gure abentura bertan behera uztea erabaki genuen.

Amazonas ibaira oso loturik egon dira zure bidaiak, munduko ibairik luzeena guk telebistako dokumentaletan soilik ikusi dugu. Nolakoa da Amazonaseko bizimodua?

Nire azken bidaiaren gehien inpaktatu naurren lekua Amazonas izan da. La Carretera Fantasma edo BR-319 (Porto Vello- Manaus) gurutzatu nuen motorrez. 5 egunez ohinaren gogortasuna bizitzeko aukera izan nuen. Amazonas paradisu dela pentsatzen duenak hobe du etxean geratzea, dokumentaletan erakusten dutenak erreataetik gutxi duela uste dut. Oihanean barneratzen zaren giroa ezengokorra bihurtzen da, gaixotasunak, beroa, Moskitoak... ibai ertzean populazioaren gehengoa mestizoa eta miseriak harrapatuta bizi da, benetako Indigenak beraien asentamentuetan bizi dira gobernuak mugatutako lekuetan, gizon zuriaren begiradatik urrun.

Zein bizizpen duzu kuttunena?

Kolonbian, Putmayoko departamenduan, Sibundoy izeneko herri txiki batean zortzi hilabetez bizitu nintzen. izan. Kamentsa etniako familia batean barneratu nintzen medikuntza tradizionala gertutik ezagutzeko. Chicumbe famiak landare sakratuekin egiten du lan eta beraien etxera mota guztietako jendea gerturatzen da esperientzia zein sendabide berrien bila. Gero eta jende gehiago gerturatzen zaienez, maloka (eraikuntza) bat eraikitzeke proiektua sortu zen, jendea bertan artatzeko. Eraikuntza lanetan aritu nintzen eta "Pentsamendu onaren etxea" inaguratu genuen. Oso esperientzia polita izan zen.

Bidaia mota oso ezberdinak egin dituzu.

Lehen bidaiako zati bat bizikletan egin nuen Ertamerikan. Afrikara motorrean joan ginen Aritz Aierberekin. Gero Hegoamerikara itzultzean Kolonbiako esperientziaren ostean, motorra erosi eta Ekuador, Peru, Bolivia, Argentina iparralde eta Brasilen ibili nintzen. Behin Manausera iristean (Brasil), motorra barkuan sartu eta Kolonbiara itzuli nintzen Amazonas ibaian gora. Azken bidaiaren, tx-



MOTZEAN:

Bidaitzen ari zarean, zer botatzen duzun faltan?

Lagunak, familia, janaria...

Zein jaki duzu gustukoena?

Pataraska (arraina platano ostean bildu eta brasatzen egina)

Zein txoko-herri-lurralde duzu maiteen?

Sibundoyko arana, Kolonbian

Bidaiak bakarrik edo konpainian?

Laguna ona bada, konpainian.

lupa eraiki eta nabigatzen saiatu gara baina ezin izan dugu. Moldatu beharra dago egoerara. Orain hegoameriketako hondartzan nago, Nepalera eramango nauen hegaldiaren zain.

Asiara salto egitera zoaz orduan, itzulteko bidai txartelik bala duzu?

Badu data, baina zeinek daki (barre artean).

Batzutan herri-mina sentitzen duzula aitortu izan duzu...

Noski baietz, familia, lagunak, euskara hitz egin eta entzutea faltan botatzen ditut. Hegoak ditugu eta gerturatzeke eta urruntzeke balio dute.

Udala mintzo

PLAZAKO OBRAK



Herri-sarreran dagoen plaza eremua (sendagilearen kontsultatik hasi eta Eliz-Gain Taldera igotzeko aldapa hasten den puntura bitartean) eraberritua izaten ari da. Zentzu honetan, errepidearen albo bietan oinezkoentzat pasalekua egokitzen ari dira, eta Tolosatik datozen autobusentzako ere geltoki berria jarriko da Udaletxe azpialdean. Irisgarritasun planetik eratorritako proiektuetako bat da hau, eta 2018 amaierarako lanak bukatuak egotea aurreikusten da.

EDUKIONTZIEN KOKAPEN BERRIA

Ibilgailuen trantsitu eremutik, gunee babestuago batera eraman dira, haur-parketik oso gertu zeuden zabor edukiontzia. Neurria egindako eremu honetan hondakien ohiko edukiontzia jarri dira: plastikoa, papera, olio, arropa eta beira.

PERTSIANA AUTOMATIKOAK ESKOLAN

Berrobiko Eskolako azpiegiturak hobetu eta automatizatzeko planaren barruan, ikastegiko pertsiana guztiak domotizatu dira, eta orain urrutiko aginte-mando baten bidez ireki daitezke.

FAROLAK BEHEKO BIDEAN


Hainbat etapatan banatu den beheko bidea argiztatzeko proiektuari bukaera eman zaio, eta gisa honetan, ibilbide guztian zehar farolak ezarri dira.

APARKALEKUA

Herriaren atzealdean, erdigunetik oso hurbil, aparkaleku eremu berria gaitu da. Era berean, sarbidea hobetu zaio, eta ohikoak ziren trafiko arazoak konpontzeko bideari ekin zaio.

LIBURUTEGIA

Liburutegiko espazio fisikoa berrantolatu da; lehen helduen liburutegia zen gunean, orain haurrentzat eginiko txokoa jarri da. Aldiz, lehen hurrek erabili ohi zuten eremuan, helduentzat egokitutako liburutegia ezarri da. Espazio aldaketa honekin batera, aipatutako bi gunek zurriz margotu dira, eta gunee oso argitsuak sortu da. Era berean, lehen zeuden altzariak zahar-berritu dira.





PARRILAK ETA ITURRIA

Beheko bidearen eraberritze lanen baitan, parkea dagoen eremuan, udaberri eta uda garaian bazkari edo afariak egiteko erabilera libreko bi parrila egokitu dira. Era berean, ur-edangarria duen iturria ere jarri da.

BOULDERRA

Begi-Urdin Gaztegunean eskaladarako boulder berria eraiki da. Ongi argiztatutako gunee berria da, eta minik ez hartzeko lur biguna ere badu.



Ekintza

Guraso Elkarte

Berrobi plazaren bueltan



Plazak eguneroko bizitzarako leku omen dira, bertan hartu-emanak, truke ekonomikoak edota elkarrizketa informalak gertatzen baitira. Horrela, herriaren erdian sozialki esanguratsua den leku bat sortzen da. Euskal Herriko beste hainbat herritan gertatzen den moduan, Berrobin ere plaza da herriaren erdigunea da. Halere, Berrobiko kasuan erdigune hau lekuz aldatu da azken urteetan herriaren garapenarekin batera, edozein herri etengabeko aldaketa prozesuan baitago.

Berrobitar asko gogoratuko da, duela ez horrenbeste arte, Berrobiko plaza udaletxe parean zegoela, nahiz eta gaur egun auto eta lorontzi artean nekez ikus daitekeen. Herriko gertakizun nagusiak plaza zaharraren bueltan gertatzen ziren, izan ere, bertan zeuden etxe edo baserri gehienak, San Andres eliza, udaletxea, frontoia eta Urkola taberna, besteak beste. Beraz, urte luzez Berrobiko bizitzaren oinarri sozial, administratiboa eta erlijiosoa herriko plazaren inguruan bildu da.

Urteek aurrera egin ahala, herria pixkanaka hazten joan da. Eraikin batzuk bota eta berriak eraitsi arren, plaza zaharrak zentraltasuna mantendu du luzaroan. Aldaketa nabarmena 2000. urtean egindako lanekin etorri zen, izan ere, orduan eraiki ziren plaza berria, parke berria, eskola berria eta azken honen alboan dauden etxebizitza berriak. Honek guztiak eraldaketa handia ekarri zuen herriaren erdialdean eta pixkanaka plaza zaharrak zentraltasuna galdu du. Gaur egun gehienok bertatik pasa besterik ez gara egiten eta autoak uzteko lekua bihurtu da hein handi batean.

Berrobitarrek plaza berriaren inguruan eraiki dute egunerokotasun berria eta ez da harrizkekoa. Herriko zerbitzu gehienak plaza berriaren inguruan daude (Iriarte jantetxea, okindegia, farmazia) eta eskola zein haurren parkea ere bertan egoteak plaza herriaren bihotz bilakatu dute. Bestalde, noizbehinkako ekintzak ere plaza berrian antolatzen dira sarri, udaberriko merkatua edota festetako hainbat ekintza esaterako. Hortaz, herriko oinarri soziala plaza berrira mugitu da.

Argi dago Berrobi ez dela handia, baina badirudi plazaren bueltan ez dagoen edozer urrun gelditu dela berrobitarrentzat. Herritar batek dion moduan,

“Frontoia hor goran dago” esaten du askok. Ni umetan frontoira joan izan naiz egunean sei aldiz gora eta behera korrika eta orain “baino nola joango dira frontoira?”. Plazan bertan jartzea nahi dute. Berrobin urruti ez dago ezer. “Hemen ez daukagu ez dakit zer”, Berrobin ezin da dena plazan jarri. Lehen asko ibiltzen ginen eta orain dena oso kontzentratuta dago leku batean [...] Plazatik kanpo ez dago lekurik jolasean edo beste ezer egiteko”.

Gainera, duela urte pare bat eskolako futbol-zelaia estali zenetik, azken hau plaza berriaren luzapenean bihurtu da eta euriaren beldur edota espazioaren egokitasunagatik frontoian antolatzen ziren azken ekintzak plazara ekarri ditu. Zaila dirudi plaza berrian egiten ari diren lanek joera hau aldatuko dutela pentsatzea. A zer marka berrobitarrena! 2,2km²-ko herri txikian bizitzea nahikoa ez eta denak 100m²-tan kaka pilan ibili beharra!

Urak dakarrena urak daroa

Zelai edo Berastegi errekek sortutako haran estu batean, Tolosatik oso gertu aurkitzen da Berrobi. Erreka txiki hauek soseguz zeharkatzen dituzte Berastegitik hasi eta Ibarra bitarterainoko lurrak. Datu estatistiko-en arabera txiki eta arrunt dirudiena, ordea, ibilbide historikoan zehar gertakizun ugariren testigu izan da, eta hortik datorkio, bada, egungo aberastasun iturri nagusia bailara txiki honi. Eta iturriak eta ura, errekek, basoak eta zuhaitzak, harriak, lurra eta bizia; hauek dira hurrengo artikulua osagai nagusienak, eta horiek izango dira hurrengo lerroetan irakurriko dituzun bitxikeria historikoen lagun.

Garai batean makinak mugitzeko indarra errekek sortzen zuten, eta horregatik lehenbiziko industriak erreka ondotan kokatzen zituzten. Lehenik errotak eta burdinolak izan ziren; gero argindarra sortzen asmatu zenean, errota asko argindarra sortzeko zentraletan bihurtu ziren, eta zentral berriak ere eraiki zituzten.

Elduarain edo Zelai errekek zeharkatzen dituen bazter guztietan zer izan den, eta zer egoeratan dauden zehazteak luze joko balu ere, jarraian, daturik aipagarrienak emango dira; izan ere, horietako eraikin batzuk dagoeneko eraitsiak izan baitira.

BERASTEGI

Berastegin 8 errota eta hiru zentral daude: Arrateko errota, Ollon dauden bi errota, eta beste lau Arrosin. Zentralak berriz: bata Arraten eta bestea, Olloko errotan. Arrateko Errota Txiki, Arrate errotaren azpialdean dago, Arrateko errotak botatzen zituen urak hartuz. Errotarri pare bat baino ez zituen, eta 1900. urtean utzi zion lan egiteari.

Arrateko errotari dagokionez, aipamenik zaharrena 1518 urtekoa da, Arrateko errota berria egiten ari zirela eta, Juan Martinez de Berastegi, jaunak, herriko kontzejuaren aurka agertzen da pleituan. Bere azken errotaria Francisco Jaka izan zen, eta 1950 bitartean martxan egon zen. Bi errotarri pare zituen.


Arrateko zentrala, 1909. urtean eraikia, Berastegi eta Gazteluko etxe batzuk korrante elektrikoaz hornitzen zituen.



Aipatzen denez, bi pertsona hil omen ziren kableak ukutu-ta. Hau ere berrogeita hamargarren hamarkadan itxi zen.

Olloko Errotaren inguruan aurkitu diren datuen arabera, 1843ko abuztuaren 7an Martin Jose Lizarzak, Ollokon bi errota eraikitzeke asmoa agertu zion Berastegiko Udalarri. Handik bost egunera, baiezkoa eman zion Udalak. Beranduago, 1892an, errotako eraikinean zentral elektrikoak jarri zuten, Felix Lizartzak eskaera egin zuen 20 litro segundoko eta 1.4 metroko alturarentzat. Azken errota-ria Jose Maria Lizarza izan omen zen.

Arrosiko errotaren kasuan, ibaiaren 100 metroko zeharkaldian, lau errota zeuden, Arrosi I, Arrosi II, Arrosi III eta Arrosi IV zeritzenak. Arrosi I-en datu zaharrena 1548koa da, Juan Martinezen maiorazko eskrituratan azaltzen da Arrosiko



Arrosiko errota

errota. 1929 urtean Juan Mari Aranaldek, 40 litro segundoko, eta 7 metroko altuerakin, aprobetxamenturako baimena eskatu zuen argi indarra sortzeko. Hiru errotarri pare zeuzkan, eta bere azken errotaria Isaac Garmendia izan zen, 1980 urtean lan egin zuen azkeneko aldiz.

ELDUAIEN


Elduainen 2 errota eta bi zentral daude: Sales Errekako errota zaharra eta Uganeko errota. Zentralak berriz, bi, Arrosiko zuloan dagoena bata, eta Uganekoa bestea.

Sales Errekako errota zaharraren datu zehatzik aurkitzea ezinezkoa izan den arren, badirudi XIV. mendean eraikia izan zela. Hiru errotarri pare zituen, eta azken errotaria Jose Luis Insausti izan zen. Orain gutxi, Burdina taldekoek garbitu eta txukundu dute.

Uganeko Zentralak, aldiz, Arrosiko zentralak botatzen zituen urak eta hegoaldeko mendiko erreka txiki guztietako urak hartzen zituen. Zentral honek Tolosako Arkauteko paper fabrikarako sortzen zuen argindarra. Uganeko Errotari dagokionez, 1890. urtean Jose Maria Echeberriak baimena eskatu zuen errota berri bat egiteko, eta hiru errotarri pare zeuzkan. Azken errotaria Ramon Etxeberria izan zen.

ELDUA (BERASTEGI)

Bazen garai batean errota bat. 1556. urtean, Elduako bizilagunek Baltasar Larrandobunori Elduaerrota deitutako errota 13 dukat eta 7 errelen truke alokatu zioten. Zentzu honetan, 1916. urtea izan zen martxan egon zen azken urtea, eta bere azken jabea Gillermo Eizagirre Tolosarra



Ugane errota (Elduain)

izan zen. Gaur egun Elduko errota eta etxea desagertuta daude (Kalparsoro papelerako etxeen parean zeuden). Horrez gain, Kalparsoroko paper fabrikako zentrala bera ere aipagarria da.

BERROBI

Berrobin 2 errota (Errota Zaharra eta Errota Berri) eta lau zentral zeuden: Lete zentrala, Urruti parean zegoena, Azpila baserri atzekoa, Errota Zaharrakoa, eta Alberdi zerrategian zegoena. Lete-Urrutia Zentrala eraikitzeke proiektua 1915. urtean egin zen: itxura oso ederrekoa eta, aprobetxamendu eskaeran 1500 litro segundoko, eta hogei metroko saltoa zituena. Presa, berriz, Elduko errota zena baina 150 metro gorago zegoen, eta gaur egun ere bertan dago presa hau. Beheko solairuan turbina Francis bat zeukan 75 Kilowatiokoa, eta gaineko solairuan etxebizitza. Bertan Olano familia bizi izan zen, ur-gordailutik turbinarainoko hodia burnizko txapa errematxatuarekin egina zegoen, eta metro erdiko diametroa eta 46 metro luze zituen. Guztira 18 hilabeteko epea zuten zentrala eraikitzeke, baina 1918an jarri zen martxan. 1974 inguruan, Urangako papelerak erosi zuen eta hodi berri batekin ura paper fabrikaraino eramaten zuten. Gaur egun jabe berriak ditu, eta zentral berria martxan jartzeko asmoa dutela dirudi.

Azpilako zentralaren eraikina gaur egun zutik dago, eta ikusi garaiko arkitektura oso agerikoa du. Ur-gordailua Tontola Gora etxea baina gorago dago. Gutxigorabera 80 metro luze eta 4 zabaleko gordailua izango da, eta nahiko egoera onean dagoen arren, naturak ezkutatu nahi



Berrobiko zentrala

duela dirudi. Zentral honek ur-emari gutxi, baina altura oso handikoa zuen. Diotenez, inguruko lantegiak elektrizitatez hornitzeko gabez gordailua bete eta egunez martxan jartzen zuten.

Errota Zaharra eta zentralaren datu zaharrenak, berriz, 1554koak dira. Berrobiko herriaren jabetzakoa zen, eta 1810. urtean pasa zen partikularren eskuetara, Andres Etxeberriak erosi zuenean. Frantsez tropek egindako gastuei aurre egiteko beharrezkoa zitzaion diru hau herriari. Errota Zaharrak errotarri pare bat dauzka. Bestalde, 1929. urtean Antonio Ormaetxeak eskatu zuen ur aprobetxamendua argindarra sortzeko, 250 litro segundoko eta 3 metroko saltoarekin 10 Kilowatioko alternadorearentzat. Errota azkeneko aldiz 1971 ean egon zen martxan, eta azken errotarria Jose Aierza izan zen.

Gaur egun Jose Mari Aierza eta Arantxa Mujika dira, erro-taren jabeak, makinaria bertan dago noizbait berriro mar-txan jartzeko zain, turbina berriz martxan dago etxearen-tzako argindarra sortzen.

Alberdi zerrategiko zentralaren jatorri-urtea zehaztea zaila den arren, Josepa Amorena herritarrak hala esanda, badirudi Berrobiko lehen bonbila elektrikoa gaur egun zerrategia dagoen lekuan ikusi zuela. Errota Zaharrak erabil-tako ura hartzen zuen, baina gaur egun presarik jada ez dago, 2011ko uholdeek eraman zutelako.

Errota Berri-ri dagokionez, 1893 eta 1895 bitartean, erro-tari bezala azaltzen da Antonio Maria Ormazabal. 1933tik 1950era jabea Juan Jose Etxezarreta Garikano izan zen, eta 1955an berriz Perfecto eta Jose Mari Ibañez azaltzen



Azpila baserriko errota

dira errota industriako kuota ordaintzen. Hasieran pen-tsua igotzen omen zuten, eta gero berriz mineralak, kar-bonato kaltzikoa eta barita, gero etxeetako paretak mar-gotzeko erabiltzen zen pintura egiteko balioko zuena. Gainera, igotako mineralak Pasaiara eta Erreneriara era-maten omen zuten. 1971 inguruan 1.20 pezeta kiloko ko-bratzen zuten, baina lana bertan behera geratu zen pare-tetan papera jartzen hasi zenean. Zehazki, 1971. urtea izan zen lanean egon zen azken garaia. Hiru errotarri pa-re ditu, eta Jose Marik bi hilabetatik behin pikatzen zi-tuen. Gaur egun Ibañez Zabalegi familia da jabea eta txu-kun eta oso egoera onean dago errotoako makinari guztia.

BELAUNTZA

Belauntzan 2 errota (Errota Zaharra eta Errota Berri) eta zentral bat zeuden (Errota Zaharrekoa).

Errota Berri dagokionez, 1863an Belauntzako Bartolome Ostolazak aurkeztu zuen proiektua errota eraikitzeko. Au-rrerago, 1877ean nagusi bezala Jose Joakin Ostolaza azal-tzen da; 1920an Antonio Urkiola, eta geldirik dagoela diru orduz geroztik. Uste da 4 harri pare zituela. Beranduago Errota Berri Karrozeria egon zen bertan. Gaur egun eraikina, konporta, kanala eta anteparak egoera oso onean daude.

Belauntzako errota zaharraren datu zaharrena 1786koa da, auzi beten inguruan, Manuel Joaquin de Elizaldea, eta Mael Antonio Barrenetxea ren artekoa. 1983ean azaltzen dira erro-tari bezala Dravasaren alarguna eta semeak. 1922an jabea Ramon Drabasa Muñoa zen, eta zazpi urte beranduago 1300 litro segundoko eta 6.5 metroko saltoko

Argazkian ikusten den hodia, ibaian dagoena, Lete-Urrutiako zentralako depositutik Uranga paper fabrikara ur garbia eramateko zen. Ate berdeko eraikin hori 1983ko uholdeek eraman zuten.



Errota Txulo



ur aprobetxamendua eskatzen du argindarra sortzeko. Turbina Franzisa rodete bikoetzekoa zuen. Hiru harri pare zituen, eta gero turbina jartzeko bat kendu zuten. Azken errotaria Teresa Drabasa izan zen, eta lanean egon zen 1973 arte. Gaur egun eraikina oso egoera onean dago, eta errotako harriak dekorazio moduan dauzkate.

IBARRA

Azkue Zaharra Ferreria, Ibarra-ko Azkue baserriaren inguruan zegoen, eta presa gaur egungo Belauntzako zubia-
ren aurrean zegoen. Jatorri-urtea zehazterik izan ez bada ere, badirudi 1846. urtean liskarretan ibili zirela Azkue la Nuevak erreka-ko ur guztia hartzen zuelako.

Azkue la nueva, edo Pertzolas burnitegia eta zentrala, gaur egun Fundación Etxaniz Ibarra-ko sarreran dagoen eraikinean zegoen. Datu zaharrenetan Tolosako Magda-

lena Azkue, alargunaren izena azaltzen da bere gizona Joaquin de Mendizabalen 1712ko testamentuan. Bertan kobrezko pertzak egiten zituzten, horregatik pertzolas izenez ezagutzen zuten. 1861 urtean Jose Manuel Etxanizek errentan hartu zuen, eta bi urte beranduago erosi egin zuen 60.100 reales de vellon etan. 1924. urtean zentrala martxan jarri zuten argindarra sortzeko, eta orduko turbina bertan dago gaur egun ere. Martxan egon zen azken urtea 1934 izan zen.

Errota Txuloren lehen datuak 1805koak dira: errentan jarri zela eta bere errotaria Jose de Etxeberria zela aipatzen da. Aurrerago, 1882an bere jabe bezela Baldomero Ollo azaltzen da. Errota lanetarako erabilera alde batera utzi zen, bere urak Tolosana papelerak hartu zituenetik aurrera. Montes Etxearen inguruan zegoen gutxi gora behera, baina gaur egun ez dago zutik.

►ARRAUNA

Mikel Areizaga (1998): lazko denboraldian Tolosa TAK eta Zarautzarekin aritu zen. Tolosan aulki fijoan bateletan. Ligan burrukan aritu arren, azkenean 4. postua lortu zuten, horrela Gipuzkoako txapelketan finalean sartuz.

Batelak amaitutakon aulki mugikorakin hasi zen Zarautzko taldearekin. Ligako bi estropadatan hartu zuten parte. Estropada saio bakoitzean 2 saio egin zituen bata bestearen atzetik. Lehena 2x modalitatean (bi pertsona-ko ontzian, pertsona bakoitza bi palekin) eta bigarrena 8+ (zortzi pertsona ontzian eta bakoitzak pala bana). Gipuzkoako txapelketan ere parte hartu zuten 8+ modalitatean, Gipuzkoan final zuzena jokatu eta 3. postuan geratu. Baita Euskadikoan Goizeko sailkapen proba ostean arratxaldean finala jokatu eta 5. geratu.

2019ko denboraldiari begira, jubenil mailan sartu da eta maila handia espero dute. Ahalik eta hobetona egitea, ligan zerbait polta lortzeko esperantzaz eta Gipuzkoako finalean sartzea helburu jarrita.

Aimar Artola (2005): Aurten hasi da Tolosa TAK-en arraunean. Orain arte igeriketa eta atletismoa probatu ditu baina zerbait berria probatu nahi zuelako egin du kirol aldaketa. Urte berriari begira dituen helburu nagusiak kirola egitea, ondo pasatzea eta txapelketekin has-tean zerbait irabaztea dira.

►FUTBOLA

Garikoitz Egimendia (1991): Tolosaldea taldearekin jokatzen du areto futboleko. 2017-2018 denboraldi amaieran igoera lortu zuten, hori dela eta aurtengoan Gipuzkoako lehen mailan jokatzen diardu. Momentuz ondo hasi dute denboraldia, lehen postuan baitoaz. Bestalde, beste baten laguntzarekin batera, nesken taldeko entrenatzaile ere bada.

Beñat Goenaga (2000): lazko denboraldian Zizurkilgo Danena taldearekin aritu zen. Jubenil mailako lehen mailan aritu zen eta denboraldi txukuna osatu zuten. Liga erregularrean bigarren postua lortu ondoren, igoera fasea jokatu zuten eta bertan 5. postua lortu zuten.

Eñaut Lekuona (2000): Legorretako taldearekin jokatzen du. lazko denboraldian ligan bigarren postuan amaitu zuten, eta ondorengo txapelketan berriz 5. postua erdietsi zuten. 2018-2019 denboraldiari begira, ligan lehen postuan amaitzea da, eta ondorengo txapelketako finalera iristea.

Eñaut Etxenagusia (2006): Joan zen denboraldian Tolosako alebinetan jokatu zuen. Ligan denboraldi ikusgarri bat eginaz gainera, partidurik ez baitzuten galdu eta ondorioz ligako txapelkunak izan ziren. Aurtengo denboraldian infantiletako lehen mailan dihardu, helburutzat ikastea eta hobetzea dituelarik.

►BIZIKLETA

Kantitate aldetik, herrian kirol praktikatuenetako bat txirrindularitza da, bai errepideko zein mendiko modalitatean ere. Inguruan lasterketa mordoia izaten dira urte osoan zehar, Abraham Olanoren errepideko eta mendiko lasterketak, Bardenetako MTB lasterketa, Donostiako "gran fondo" deiturikoa (Berrobotik bertatik pasa zena gainera) dira adibide batzuk. Inguruan lasterketa ezagunena Sabiñanigoko zita da, Quebrantahuesos lasterketa famatua, izena bertako arrano espezie bati zor diona. Aurtengoan Joxeluis Zabala (6:47:30) eta Iraitz Ugartemendiak (7:15:54) egin dute. Bestalde urteroko moduan, herriko jaietan egiten den Azpirozko itzulia ezin aipatu gabe utzi. Aurtengoan ez zuen eguraldiak lagundu, baina azken urteetan ez bezela neska batek ere egin zuen itzulia, June Ugartemendiak hain zuzen. Ea datorren urtean laguntzailerik duen. Bejondeiola!





► AUTOMOBILISMOA

Amaitzear den 2018. urte honetan ere auto barruan ibili da Gaizka Zabala, zebilen lekuan Berrobiren izena utziaz. Ikusiko den moduan makina bat lekutan barrena ibili da aurtengoan ere.

Rallysprintei dagokionean, urteroko legez Gabiriko rallysprint-a korrituz asi zen urtea. Denboraldi aldaketan kotxea goitik bera txukundu eta pintatu zuen. Baita transmisioari dagozkion zenbait hobekuntza ere. Betiko moduan helburu nagusia ondo pasa eta disfrutatzea izan ziren, bai proba honetan eta baita hurrengoetan ere, Goierriko eta Azpeitiako rallysprint-ak.

Aurten gogo askorekin aritu dira Nafarroko probetan, batzuk aipatzearen Izpegiko igoera eta Lesakako rallysprint-a, beti ere helburu ondo pasatzea izanik.

Drift munduan ere ibili da. Kotxeak maila baxua du onen kategorian lehiatzeko, pieza guztiak ez direlako goi mailakoak, baina autoak, fabrikatik ekarritako motorra aldatua duenez, "pro" mailan lehiatu beharra izaten du, hau da, mailarik altuenean. Mailan egon daitekeen desberdintasun ikusteko, Gaizkaren autoak BMW 330i e46 baten motorra du, 230 zaldi inguru beraz, aldiz maila horretan 500-1000 zaldiko kotxeek parte hartzen dute. Gustuko modalitatea duenez etxe inguruko probetan parte hartu du. Espainiar mailako proba batean parte hartu zuen, Mirandako zirkuitoan eta bertan bi aurkari haundi-

ri nagusitu eta laugarren postu esanguratsu batekin. Gaztela eta lehoiko kategorian ere lehiatu du, urteko bi probetan lehen postua erdietsita, eta ondorioz txapelketa irabazle izanez.

Aurten, nobedade gisa, Kantabriara joan zen bi igoera lehiatzera. Distantzia urrun xamarra izan arren, izen ematearen prezio merkeagoak eta gurpilen aukeraketa EAEn bezain zorrotza ez izateak erakargarri egiten baitu. Oso gustura ibili da, bide politak eta ikuslego ezinhobea dituen lurretan. Errepikatzeko moduko esperientzia izan da ezpairik gabe.

Gustuko modalitatea aukeratzeko ez dela erreza dio, askok egiten dioten galdera da eta ezin du drift edo igoeren arteko aukeraketa bat egin. Drift-ean aurkaria ahalik eta gertuen jarraitu behar da eta horrek adrenalina asko ematen du naiz eta probak laburrak diren. Igoerak aldiz 3-5 minutuko probak dira, eta lehen aipaturiko adrenalinarekin batera, poztasun moduko sentsazio bat ematen du.

Lerro hauek aprobetxatu nahi ditu, betiko lagun guztien laguntza eskertzeaz gain, bi enpresen laguntza eskertzeko. Orain arteko moduan Desguaces Zabala, eta aurtengoan, berrikuntza moduan Karting Olaberria.

Datorren 2019 urteari begira, lasai hartzeko asmotan dabil. Etxe ondoko gustuko proba gutxi batzuk korrituz konformatzen saiatuko baita.

► PILOTA



ESKUPILOTA

Xabi Zubiria (1996). Aurtengoan ere Amezketako Zazpi Iturri pelota eskolarekin aritu da. Binaka Lodosan eta Gipuzkoako ohorezko mailan final erditara, Aizarnazabal eta Alegin azpitxapeldun eta Getarin txapeldun. Lau terdiko txapelketa berriz Bergaran eta Tolosan azpitxapeldun, eta Najeran txapedun. Azkenik txapelketa nazionala irabazi zuen Amezketako Zazpi Iturriekin.

PALA

Arantzazu Rodas (1995): Amaitzean den urte honetan Euskal Herriko irkeian parte hartu zuen beste bi neskaekin batera, Anoetako txapelketan finalerdietara iritsi zen eta Berazubin bigarren.

FRONTENISA

2018an XXVII. Ion Ander Izagirre Frontenis txapelketa jokatu da. Aurtengoan partaidetza jaitsi da mutilei dagokionean, eta neskena mantendu da. Mutilen binakako txapelketan 19 bikotek parte hartu dute, Nesken binakakoan 7 bikotek, txapelketa mixtoan 6k eta mutilen binakakoan 8k. Hau honela izanik, normalean baino ordu tarte laburragoan jokatu da txapelketa, lehen partidak ordu erosogoa jarriz.

Finalei dagokionez, abenduaren 8an jokatu ziren. Lehenbizikoan, mutilen binakakoan Xabi Goikoetxea eta Ibai Amundarainek lortu zuten txapela Lander eta Ander Agirre anaiak 30-16-ko emaitzaz garaituta. Ondoren, mixtoen finala jokatzea zen, baina finalista batzuek jokatu ezin zuten Xabi Goikoetxea eta Leire Jaurigi izan ziren garaile. Hirugarren finalean, nesken binakakoan, Aiora Galarza eta Alazne Garmendiak garaipena erdietsi zuten Aiora Lasarte eta Aitziber Zabaletaren aurka 30-18ko emaitzaz. Amaitzeko, Odei Arregik 30-13ko emaitzaz garaitu zuen eguneko hirugarren finala zuten Xabi Goikoetxea, horrela Odeik, bere bostgarren txapelketa lortuz gurean.



► KORRIKA

Korrika edo lasterka aritzea, behar den materialari eta bakarka egiteko aukerari erreparatuz, praktikatzea errezenetakoa den kirola da. Berrobin ere badira urte osoan zehar korrika aritzen direnak, bai errepidean eta baita mendian ere. Bietako edozein modalitatetan ia asteburo daude lasterketak, gauden inguruari erreparatuta ordea proba nagusiak Behobia-Donostia maratoi erdia errepidean eta Zegama Aizkorri mendi maratokia lirake. Beraien prestakuntzarako lasterketa mordo bat izaten dira Berastegiko Negutrail estreina-koz aurren, Tolosaldeko 3 tontorrek, Donostiako 3 hondartzak, Aiako mendi lasterketa... Kontaezinak dira inguruko proben zerrenda. Proba nagusietako herritarrak izendatze aldera Zegama Aizkorri mendi maratoin 4:59:15 ko denbora lortu zuen Ibai Madinak. Ekainean Tolosaldeko 2 tontorrek lasterketan Jon Altuna, Asier Arredariz, Niko Artola, Mikel Belaunzaran, Xabi Pagola, Alex Jimenez eta Ion Ander Lezeak amaitu zuten proba. Errepideari dagokionean Behobia Donostia amaitu zuten herritarrak Ibai Madina, Gregorio Plazola, Xabi Pagola, Diego Torre, Iosune Alberdi, Iñigo Aurkia, Ander Rozas eta Igone Lasa izan ziren. Azaroko maratonia Ibai Madinak egin zuen. Amaitzeko ezin aipatu gabe utzi Iraileko XVI. BerroBira lasterketa. Aurtengoan 58 partehartzaile izan ziren eta beraietako 18 herritarak izan ziren helduen mailan, 57 hurrek ere parte hartu zuten lau kategorietan banatuta, horrela azken urteetako partehartzaile kopuru handiena lortuz. Emaitzei dagokionean lasterketako garaileak Aitor Regillaga (24:06) eta Maialen Muñoz (29:45) izan ziren. Herritarrei erreparatuta lehenak Ibai Madina (25:49) eta Iosune Alberdi (33:36) izan ziren.



2018 hau bigarren urtea izan da Ibin Kirol klubarentzat, lehen urtean sorturikoa, indartu eta finkatzen hastekoa. Hori dela eta, hainbat ekintza antolatu dituzte aurtengoa ere. Urte hasieran eginiko planningean bi ekintza nagusi zeuden, irailean izaten den BerroBira krosa eta azaroko Ion Ander Izagirre frontenis txapelketa. Aurreko urteko emaitza ikusita garbi zegoen herrian badela mendi zaletasuna eta hilabete gehienetan mendi irteeraren bat antolatzea zen asmoa, iazko emaitza arrakastaren ostean, baita Pirinioetara bi irteera ere, bata eskiatzera eta bestea mendira. Hitzaldi bat ere antolatu dute Ibinekoek estreinakoz.

► IBIN KIROL KLUBA

Orokorrean urtea positibotzat eman daiteke, iazko bi-deari jarraituta aldaketa gehiegi egin gabe emaitza positiboa izan delako. Betiko moduan ekintza batzuk, beste batzuk baina arrakasta handiagoa izan dute. Lehen urteurren ekitaldia kasu, eguraldi txarra tarteko inor ez bai-zen azaldu Ibingo mendi itzulia egitera eta ezta ondorengo dohaineko hamaiketakora ere. Bestalde, eskiatzeko irteeran, Piriniotako irteeran edota Herniorakoan 20 lagunetik gorak parte hartu zuten, eta hori pozgarria da.

Urtean zehar ekintzak banatzen saiatu dira. Urtarri-lean, urtea ondo hasteko, Uzturrera igo ziren. Otsailean, Astuneko elurretan barrena ibili ziren eskiatzen. Martxoan, aurrez aipaturiko urteurren ekitaldiaz gain, Nire buruari erronka ekimena jarri zen abian, bertan elikadura, kirola eta garapen pertsonala landu zituztelarik. Maiaztean ping-pong txapelketa eta Inaxio Perurenaren harria hitzaldiaz gozatzeko aukera izan da. Ekainean atzeko txokoko esku pilota txapelketaren bigarren ekitaldia jokatu da, eta Berianerako mendi irteera ere bai. Uztailean piriniotan ibili dira, Anayet eta "ibones azules" deiturikoetan barrena. Abuztuko oporren ostean irailean Hernioko erromesaldian ibili dira eta baita XVI. BerroBira lasterketa antolatu ere. Aurtengoan gainera 58 partaidek hartu dute parte helduen mailan (57 pertsonak haurren mailan), iazko partaide kopurua ia ia bikoiztuz. Azaroan XXVII. Frontenis txapelketa lehiatu da, eta hemen berriz, partaide kopurua nabarmen jeitsi da, modalitate guztietako 110 partaide ingurutik 72ra jaitsita. Halere, bertaratutakoek giro ederrean pasa dituzte azaroko azken bi asteburuak eta abenduko lehena. Azkenik abenduan, urtea hasi bezela amaitzeko, Uzturrera igoaz.

Aurrera begira, Ibinekoek badituzte egitasmo berriak buruan, nahi dutenentzat kamiseten salmenta, hitzaldiak, ekintza berriak. Herritar guztiak parte hartzera animatzen dituzte, giro polita izaten delako ekintzetan eta ez dagoelako inolako forma fisikoaren beharrik. Momentu onak pasatzeko antolatzen baitituzte ekintzak eta ez erlojuari begira presaka ibiltzeko.



Onditz
ESTETIKA ZENTROA

Hafanra Elorbidea 1. behean · 20400 Tolosa
943 648 993 www.onditz.com



I K K

Ibin Kirol Kluba



**Eguneko menuak ·
Menu bereziak ·
Asteburuko menuak ·
Karta ·**

☎ 943 683 078
Berrobi



SHANTI **KIROLAK**

Rondilla, 11 · ☎ 943 674 074 · Arostegieta, s/n · ☎ 943 676 093
Tolosa



BERROBIKO OGI-BERRI
Okindegia - Kafetegia

Maribi Agirretxe
☎ 943 683 077 - 669 631 631

Jose M^a Goikoetxea, 31 behean - Berrobi



Berrobiko Eskola

Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik

JUBILATUEN CLUB DE ELKARTEA  **CLUB DE JUBILADOS**

SOLASTOKI

Eliz-Gain etxea 20493 Berrobi



kutxabank

Berrobiko

Zuhaitzak



Intsusa




Haritza



Intxaurrendoa



Urkia



Pagoa



Lizarra



Elorri zuria



Gaztainondoa



Urritza



Astigarra



Altza



Gorostia





Likidanbarra

Sagarrondoa

Zumarra

Platano arrunta



BARAZKI BIZIDUNAK 
 NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
 687 878 936
 - BERROBI - 



Embalajes- Zerrategia

ALBERDI

Erbaita, 1
 20493 BERROBI (Gipuzkoa)

Tel-Fax 943 68 30 61
 e-maila: embalajesalberdi@gmail.com



CENTRO AUTORIZADO DE VFU-s

DESGUACES ZABALA, S.L.

Beotibar Industria Poligonoa, 18
 20491 BELAUNTZA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 67 17 90
 Mug.: 696 59 33 47
 Faxe: 943 67 14 07
 desguaces_zabala_sl@hotmail.com



**ERRAZKIN
 ARTOLA**
 harategia



hiziduna
**EUSKAL
 HERRIA
 KALEA 53,
 BEHEA
 20400 IBARRA
 (GIPUZKOA)**

telefonoa
943 249 429 / 608 764 890

e-posta
**CARNICERIA-KARNIBERRAZKIN
 @HOTMAIL.COM**

40 URTE BIDEA EGINEZ

HISTORIA

1926ko Alfonso XIII.aren Errege Aginduak honela zioen: "Bertako hizkuntzari eusten dioten eskualdetan hizkuntza ofiziala (gaztelania) irakastea preskribatzen, bertan behera uzten edo oztopatzen duten irakasleei espedientea zabalduko zaie, eta lana eta soldata ere eten daieke; areago, Espainiako beste probintzia batzuetara lekualdatuak izan daitezke derrigorrean".

1932an, Bigarren Errepublikak galarazi egin zuen ikastetxe publiko eta pribatuetan euskara irakastea, baina ez zuen saihestu norbanakoen funts pribatuen eskutik lehen ikastola elebidun apurrak sortzea.

1937ko maiatzaren 29an, Gobernu frankistak gaztelera hizkuntza bakartzat ezarri zuen alor guztietan, eta euskara guztiz debekatu zuen: irakaskuntzan, hedabideetan, agerraldi publikoetan, dokumentu ofizialetan, elizetan... Azken hauetan, gutxienez, sermoia ulertzen ez zutenentzat, apaizek izaten zituzten hamar minutu gaztelera zandakoaren laburpena euskeraz predikatzeko.

Urte latzak gerra ondorengoak. "Escuelas Nacionales"-etan, euskera debekatuta, eraztun zigorrak, pedagogia atzerakoia eta ideologia frankista ziren nagusi. Herri txiki eta herri haundietako eskoletan erdera hutsean irakasten zen. Maisu-maistra gehienak erdaldunak ziren. Orduko egoera zapaltzaileak ez zuen gazte euskaldunak Magisteritza ikas-tera bultzatzen. Maisutza ez zen lanbide erakargarria.

Bestalde, 1964tik aurrera, Euskal Herriko zenbait herri-tan "Ikastolak" sortu zituzten elizaren babespean. Hainbat gurasok, laguntzailek, irakasle tituludunek eta titulurik gabeko beste batzuek, oztopo eta zailtasun askorekin, euskararen hazia ereitea eta indartzea lortu zuten. Urte batzuk beranduago, Kataluniako ikastaroei esker, "Celestin Freinet" frantziar pedagogoaren ideia aurreraiko eta modernoak ekarri zituzten ikastoletara.

EUSKARA BENETAN GURE ESKOLETAN

Franco diktadorearen azken urteetan, "eskola nazional-letan ere euskararen desio eta beharra haundituz joan zen". **1976an, "Comision de Bilingüismo"** izeneko talde bultzatzaile bat eratu zen Gipuzkoan. Batzorde hartan

bildu ziren hainbat guraso, irakasle, idazle, ekonomialari, Ruiz Balerdi pintorea... Hauxe zen batzorde horren egin-kizuna: eskola handietako eta txikietako gurasoei euskaraz ikastearen onurak azaltzea eta Delegaritzarekin negoziazioak burutzea. Horretarako, eslogan deigarri eta esanguratsua zabaldu genuen: **"Euskara benetan gure Eskoletan"**. Lehenengo urratsa, 16 eskola haundi eta txikitan irakasle euskaradunak (ez zegoen orduan askorik) sartzen hastea izan zen. Hurrengo urtean, euskara eta euskeraz irakatsiko zutenei Hezkuntza Delegaritzak Euskal Irakasle tituluaren beharra exijitu zien. Euskaltzaindiak, B edo D izeneko agiriak ematen zituen, azterketaren baten ondoren.



1978ko irailaren bukaerako 28an Berrobiko "Escuela Unitaria" izeneko hartan maisu izendatu ninduten. Hurrengo egunean ezezaguna zitzaidan herritxora eta bertako eskolatxora iritsi nintzen. Itxita zegoen. Umeak kallean edo etxean. Beste maisu-maistren arrastorik ez. Hiru lanpostu behar ziren Berrobirako. Tolosan eta eskola haundietan ikasturtea hasita zegoen.

Zer egin? Gurasoekin elkartu, behar ziren beste irakasle biak ez zeundela oraindik izendatuta azaldu, ikasleen onerako irakasleak euskara jakitearen beharra eta onura azpimarratu...

Hezkuntza Delegaritzak astean behin egiten zituen izendapenak eta irakasleek banan-banan herria eta es-

Zimenduak

“Leon”go maistra haren erregela zartak probatutako azken belaunaldikoak izango gara gu. Udaletxe azpiko “Parvulitos”-eko gela haien irudia iltzatuta daukat oraindik, baita zigortuta “arratoien gelara” bidaltzen gintuenean han zegoen mapamundi hautsezatu hura ere, edo eguerdi batean etxera bazkaltzera joan gabe zigortu nahi izan gintuenekoa, deabrukeriaren bat egin zuen ikaskidea nor izan zen salatu ez genuelako.

OHoko lehen ikasturtea, 1978an, hasi behar genuen urtean iritsi zen Bittor herrira, 2 Cv beix hartan, “hau al da Berrobi?” galdezka. Irakasteko beste modu batzuk ekarri zituen, eta batez ere, eskolan ordura arte ezagutu ez genuen hizkuntza ekarri zuen. Euskara. 40 urte joan dira geroztik. Beraz, OHoko 1. mailatik aurrera ikasketa guztiak euskaraz egiteko zoria izan genuen lehen belaunaldikoak gara gu.

Ikasliburuek ezarritako morrontza zurrunik atera eta irakurgaiak lantzen, antzerkitxoak egiten, Xirula Mirularekin musika ikasten, astelehen goizetan asteburuko berri elkari kontatzen hasi ginen Bitorrekin, eta gero jarraitu Josema-rekin. Beste batzuk, berriz, Jone eta Sebasekin... Gaur egun ohikoak dira horrelakoak, baina artean berriak ziren guretzat. Euskara ez ezik, bestelako hezkuntza-moldeak ere ekarri zituzten irakasle haiek Berrobira.

Berrobi hura zen galdezka etorri zen irakaslea Berrobin errotu zen aspaldi, eta haren eskutik belaunaldi asko igaro dira geroztik. Beste irakasle asko ere aritu dira eta ari dira Berrobiko eskolan, eta nork bere ekarria egin du. Eraikina bera ere beste bat da orain, askoz modernoagoa eta egokiagoa, baina esango nuke duela 40 urte lantzen hasitako orubearen gainean, zimendu haien sendotasunean, asentatzen dela gaur egungo eskola. Gora zuek!

Ramon Olasagasti

kola hautatzen zituzten. Urriaren aurreneko astean maisu-maistren aukeraketa egunean guraso taldetxo batekin Donostiara joan ginen. Inork ez zuen Berrobiko lanposturik hartu. Bigarrean ere ez. Bitartean, umeak eskolarik gabe. Urduritasuna nagusi.

Azkenean, hirugarren astean, aurreko urteko interinoren bileretan ezagututako Yone Imaz eta Sebas Herrero-rekin hitz eginda, herritxo honetara etortzea erabaki zuten. **Hura zen poza eta lasaitasuna denontzat!**



Urriaren 24an hasi genuen ikasturtea. Haur Eskolako 3, 4 eta 5 urteko 28 ume Yonekin. Lehen Hezkuntzako 1. 2. eta 3. mailako 26 ikasle Bittorrekin. Sebasek, artean euskaraz ez zekienez, 4. eta 5. mailako 33 hartu zituen. Irakasleen banaketa horrek euskalduntze prozesua errazten zuen: “Parvulitos-ekoek” eguneroko jarduna euskeraz egiten zuten; bigarren taldekoek hiru gai nagusiak gazteleraz, eta beste denak euskeraz. Helduek, gai guztiak gazteleraz, baina, bi irakasleok trukea eginda, astean hiru aldiz ordu beteko eskola jasotzen zuten euskaraz. Zailtasunak zailtasun, garrantzitsuen zera zen: **euskaraz irakasteko ate itxia irekitzen ari ginela.**

Denera, 90 bat ikasle: hauetatik % 40k ama hizkuntza gaztelera zuen. Lehen Hezkuntzakoek Eskola zaharreko beheko bi geletan banaturik eta “Parvulitos”ak Udaletxeko lokal zabalean. Azpian, ukuilutxoan, untxiak zeuden, usain naturala zabalduz.

Honela kokatu ginen hiru irakasleok 90 ikasleekin. Egoera berria zen: hiruetako inor eskola txiki batean aritu gabea zen; euskerazko ikas-libururik eta materialik ez zegoenez, baldintza berdinetan zeuden irakasleen arteko koordinazioaren premia nabaria zen; gurasoekin ordura arte bilerarik ez zenez egiten, horiek ere egin beharra; zigorrak kentzea eta ikasleekiko konfian-

tzazko pedagogia ezartzea; Eskola Kontseiluaren eraketa (guraso, irakasle eta Udal ordezkariak osatua). Bazegoen lana bazegoenez!



Bigarren urtean, 1979an, ikasleen kopurua kontutan hartuz, "Delegaritzak" beste lanpostu bat sortu zuen Berrobirako. Martinak bereganatu zuen, euskalduna bera ere. Lautik, hiru euskaldun. "Parvulitos-eko gela bitan banatu eta batean Lehen Hezkuntzako 1. mailako 17 hasi ziren ikasten. Bestean, txikienak 18 ziren.

Hirugarren urtean, 1980an, Sebasek, euskaraz ez zekienez, hemengo bere lanpostuari uko egin zion maisu euskaldun bat etor zedin. Bere ordezkari Eibarko Joxema izan zen laugarren euskalduna. **Euskalduntzearen atea guztiz zabaldu zen.**



1980ko lehenengo bost urteetan, oztopo eta hutsune ugari gertatu ziren oraindik. Eskola Txikiak bigarren mailakoak ziren ("ez da Tolosako eskola haundietan adina erakusten" zioten berriketa eta esames kaltegarriak). Zerbitzuak jasotzen azkenak. Ordezkoak lortzeko zailtasunak zeuden. Tutore bakoitzak ematen zituen ikasturteko gai guztiak, asteazkenetako ordu bateko erlijioa izan ezik. Delegaritzak hiru hilabeteko gastutarako diru kopuru murritzarekin moldatu behar gertatu euskarazko ipuin, libu-

ruxka eta pedagogia berrirako materiala erosteko... Zuzendaritza karguari zegokion dirua, geure artean banatu ordezkariak jolas hezitzaileak erosteko erabiltzen gertatu. Orduko gurasoetako batzuk, "Papeleretan" lan egiten zutenek, borobildutako paper-roilo haundiak dohain lortzen zituzten. Tolosako inprimategi batean neurritan moztuta urte guztirako papera gertatu. Ez zegoen fotokopiagailurik, eta ikasketak kopiak izateko glizerina, cola de pescado eta alkoholarekin nahastutako "membrilloa" erabiltzen gertatu. Orriak banan-banan eta pazientzia handiz ateratzen gertatu. Metodo horrekin, hasierako urte haietan "KAXIMIRO" aldizkaritxoak noizbehinka ateratzen zuten 4. eta 5. mailako ikasleak.

Ikastoletan, ikasi beharreko gaietarako euskarazko liburuak sartu ziren pixkanaka, eta urte gutxiren buruan irakaskuntza guztia euskeraz egitea lortu zen, D ereduan. Eskola txikietako irakasleok, ordea, makina bat lan egin behar izan gertatu egoera horretara iristeko; izan ere, Samaniegon, eskola orduetatik kanpo prestatu eta egokitu behar izan gertatu material guztia, mailaz-maila. Lana eta ilusioa batuta gertatu.

ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK

1985etik aurrera, gizarteak zeukan ideia faltsu baten aurka borrokatu behar gertatu: Eskola haundi kontzentratu eta pribatuetan hobeto, gehiago eta aukera zabala goarekin erakusten zela txikietan baino. Bazegoen kezka gurasoen artean: "Hemengoak bukatuta, ondo prestatuta joango al dira gure seme-alabak Samaniegora?" "Horri aurre egiteko, norberaren lana sendotu, gurasoei konfiantza barneratu eta eskola txikiak eskaintzen dituzten balore sozial, pertsonal eta akademikoak agertu beharra zegoen. Irakasleok, ordurarte bezala, fin eutsi zion bere lanari. Rosa Urain eta Yon Urrusolo irakasle berriei lanpostuen egonkortasuna lortu zuten Berrobiko eskolak.

1987an hogeita bost eskola txiki zeuden Gipuzkoan. Geure arteko koordinazioa indartzeko, eskola txikien aldarrikapenak eta hauetan ikasteak dituen abantailak jakinarazi eta kontzientziatzeko, Bidanien "ESKOLA TXIKIEN FESTA ETA ALDARRIKAPENA" eratu gertatu. **"Eskola txikiak bizirik"** lema orduantxe txertatu zen. Lehenengo aldiz, herritxo askotako guraso, Udal ordezkari eta irakasleak ikasleekin elkartu gertatu, behin ere egin gabeko jai ederrean. Eskola bakoitzak bere ekitalditxoak burutu zuten: abestiak, antzerki motzak, bertsoak, olerkiak, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo hasiberriak. Harro egotekoa zen. Hurrengo

urtean, Berastegin egin genuen jaia, eta gero etorri ziren Gaztelu, Aia, Gabiria, Igeldo, Arroa... Berrobi (2009an), ikaztegieta... Azkena, Oikian izan da, XXXI.a.



1990eko hamarkadaren hasieran, eskola txiki guztiengat koordinatzaile bat izendatu zuten. "Ekintza Guraso Elkarteak" bere bide onari ekin zion, eskola orduetatik kanpo zenbait arlo berri ikasleentzat bultzatuz: Musika, Antzerkia, Dantza, Pilota... Geletan, ahal zen neurrian, "Txoko-etan" erakusten hasi ginen. Eskolaren gainean zeuden irakasleen bi pisotxoetan bi gela berri egokitu genituen. Hortik aurrera, ikasle guztiak eraikin bakarrean zeuden. Udalak onartuta eta ordainduta, astero ordutegi barruko bi goizetarako, Joxema antzerki monitore bezala kontratatu zuen. Esan genezake, gaur egungo "Berrobiko Helduen Antzerki Taldea" Joxemaren eta bere ordeztorritako Elenari esker plazaratu dela.



Jaurlaritzak Gorputz Hezkuntza, Ingelera eta Musika irakasle "espezialistak" jarri zituen. Baita premia jakinen bat zutenentzako Heziketa Bereziko irakaslea ere. Pedagogikoki aurrerapen galanta izan zen. Ordezkoak, behar zirenerako, bagenituen. Bertsoegintzaren hastapenak. Igeriketa ikastaroak Tolosan. Kirol Topaketak eskola txiki-txiki ikasleen artean. 1994ean, udaberrian, hasi ginen "Aterpetxe-etara" joaten egun batzuk bertan pasatzera: Hondarribira, Zarautzera... Urtero bi herri desberdinetan antzerki, bertso eta musika ekitaldia burutzen genuen. Horrela, harremanak sendotuz, 12 urtekin Samaniegoren DBH-n hasterako, aurpegiz behintzat, askok elkar ezagutzen zuten.

XX. mendearen bukaerarako, ikasle kopurua gehituz joan zen, eta gure eskola txiki geratu zen. Sukaldetxoa eta Etxola, bi urtetan gela bezala erabili ziren. Egoera "surrealista" zen. Etorkizuna?

ESKOLA BERRIA



1995. urte inguruan hasi ziren jada bertako irakasle eta gurasoak, Eskola zaharkitua eta baliabide eskasekoa zelarik, Eusko Jaurlaritzara ate joka, berrikuntza eskaeran. Horrela, makina bat borrokaren ondoren, Udalarekin batera,

eraikin berria egiteko hitzarmena lortu zen herriko erdigunean. 2006-2007 ikasturterako eskola berria bukatuta zegoen. 2007ko urtarrilean inauguratu zen ofizialki.

Eraikina zabala, handia da. Bertan ematen dira arlo guztiak, bi solairutan banatuta. Hala, gaur egungo eskolak Haurreskola, Haur Hezkuntzako bi gela, Lehen Hezkuntzako 3 gela, psikomotrizitate gela, informatika-liburutegia, jangela eta irakasle gelak hartzen ditu. Horrez gain, bi patio estali ditu.

Honek, eskola ordutan egiten diren jardueraz gain aukera ematen du herrian egiten diren hainbat ekintza aurrera eramateko ere (eskolaz kanpoko ekintzak, pilates, yoga, hitzaldi, bilerak...).

Hala ere, eskolako eraikina ez da inolaz ere ikasteko leku bakarra gaur egun, kanpoko ingurunea guztiz garrantzitsua da ikasketa prozesuan eta horregatik kanpora begira geroz eta jarduera gehiago egiten dira.

Bestalde, baliabide pertsonalak ere garai batetik hona asko hobetu dira. Gaur egun, tutoreez gain, Ingeles, Gortuz Hezkuntza, Musika, Heziketa Berezi, Hezitzaile eta logopedak ere badira eskolan, eta horiei esker, behar des-

berdinei modu egokiagoan erantzuten zaie. Horiez gain, gurasoen eskaerari erantzunez jangela zerbitzua hasi zen 2001. urtean Etxolan. Gaur egun ohiko 40 bazkaltiar inguru biltzen dira eskolako jangelan, eta hiru zaintzaile egoten dira hurrei laguntzen. Bestalde, azken urteetan goizeko zaintza zerbitzua ere martxan da, Guraso Elkar-teak antolatuta, beste zaintzaile batekin.

Metodologia aldetik ere asko aldatu dira kontuak. Gaur egun, proiektuka egiten da lan eskolan, gai desberdinen inguruan, informazioa bildu eta ikasleen autonomia bultzatuz; irakaslea denaren jakitun izatetik gidari izatera pasa da. Teknologi berrien munduan ere aurrerapausu garrantzitsuak eman dira: arbel digitalak geletan, ordenagailu pertsonalak, bloga, web orria, dokumentu ezberdinekin sarean lan egitea, beste eskolekin harremanak... Modernoa, ongi hornitua, inbidia sanoa eragiten duen eraikina da orain Berrobiko Eskola.

Berrogei urte igaro dira. Erein genuena, urtez-urte hazten ikusi duguna eta gaur egun dugun altxor eder hau beste eskola txikiekin batera eredu da euskeragintzan eta heziketa arloan. Irakasle eta guraso askoren lana izan da honainoko bidea. Bejondeigula guztioi!





USARRA BASERRIA

Baserria euskal kulturako elementu garrantzitsua izan da, sinbolo bat. Nortasun bereziko eraikuntza batez gain, nekazaritza, abeltzaintza eta antzeko jarduera nagusiak dituen ekonomia erakunde bat da eta aldi berean, unitate ekonomiko hori ustiatzen duen familiaren etxebizitza izan ohi da.

Baina industria hedatzen eta nagusitzen joan den heinean, baserriaren garrantzi ekonomikoa galtzen joan da eta gaur egun, gehinetan nekazaritza denbora pasa bat besterik ez da. Zutik irauten duten baserri gehienak gure paisaia apaintzen duten etxebizitza dotore batzuk besterik ez dira.

Berrobiren kasuan, Carlos Linazasorok 1974an argitaratu zuen "Caseríos de Guipuzcoa" liburuan 42 baserri aipatzen ditu, horietatik 11 erorita edo hutsik. Garai hartan jada nekazaritza bigarren mailako aktibitatea zen herriko baserri gehienetan.

2018an, 42 horietatik, 6 desagertuak dira eta 14 erorita edo hutsik daude. Okupatuta daudenetatik, 5etan artalde kozkor batzuk dituzte, 4tan larreko behiak. 3 besterik ez dira nekazaritza eta abeltzaintza irabazbide nagusiak edo nagusienetakoak dituztenak: Soronea, Telleri eta Usarra.

Soronean baratza ekologikoa dute eta honi lotutako janari denda, Tellerin maizter batek baratza ekologikoa ustiatzen du eta etxeok plakak fotovoltaikoak eta landetxe bat dituzte. Bi baserri hauen berri emana dugu urtekari honetan. Oraingoan Usarrari buruz ariko gara.

ANTZINAKO KONTUAK

Atzera eginda, Tolosako Artxibo Orokorrean, Usarra toponimoa Berrobiri lotuta 1553ko dokumentu batean aurkitu dugu lehenengo aldiz. Sebastian Arruiztegik, Pedro Upelategiri Usarra gaztainadia eta Urrutibaratz sagastia 28 dukaten truke saldu zizkioneko eskritura hain zuzen.

Usarra etxearen lehen aipamenak berriz zentsuei esker aurkitu ditugu. Zentsuak mende haietan partikularren artean egiten ziren mailegu mota bat dira, non mailegua jasotzen zuenak (zentsu-hartzailea), ordainketaren berme bezala bere etxea eta honi zegozkion ondasunak jartzzen zituen. Maileguaren truke, zentsu emaileak urtean errenta bat jasotzen zuen.

Lehen bi aipamenak 1591 eta 1597koak dira. Bietan, ja-beak Joanes Gastealzategi eta Maria Lapaza senar-emazteak dira eta bi zentsu ezberdinei aurre egiteko bermeztat erabiltzen dituzte Gastealzategi, Egiluze eta Usarra etxeak aurreneko kasuan, bigarrenengan berriz, Gastealzategi etxea eta Egiluzea eta Usarra bordak aipatzen dira.

Hurrengo aipamenak XVII. mendekoak dira. 1640an, ja-beak Juanes Zabala eta Katalina Akolodi dira eta zentsu baten ordainketa bermatzeko Akolodi etxea eta Usarrako borda erabili zituzten. 1674 eta 1681ean Juan Zabala Akolodik, Akolodi oinetxea eta Usarra etxearekin bermatu zituen jasotako zentsu batzuen ordainketak.

1708an bere semeak, Esteban Zabala Akolodik ezkonaritan Usarra etxea jasotzen du eta handik aurrera, bere ondorengoan eskutan egongo da ia beti aipaturiko etxaldea. Bere alaba Magdalena, honen alaba Klara Zumeta Zabala-Akolodi, eta honen semea, Juan Bautista Olano Zumeta izango dira Usarrako nagusiak. 1863an, Juan Bautistaren biloba bat, Concepción Sorregieta Olano, Jose Antonio Belaunzaran Etxeberriarekin ezkondu zen eta 3 alaba eta seme bat, Lesmes, izan zituzten.

Lesmes Belaunzaran Sorregieta 1907an Teresa Irazustarekin ezkondu zen. Ezkontza itunean (AGG-GAO PT3851/260), aita Jose Antoniok bere ondasunak semeari eman zizikion. Usarra baserria (bere emaztea zenaren familiarengandik jasotakoa, 16.258 pezetatan baloratua) eta Martinsoro baserria (16.800 pezeta), ganadua (5 behi, 4 txekor, asto bat, eta 16 oilo denetara 1.755 pezeta) 2 gurdi, hainbat lanabes, arotzgintzako herra mintak, tolarrea, 3 barrika eta garia garbitzeko makina (lanabes guztiak 400 pezeta). Horren truke, Martinsoroko usufruktua Jose Antoniok izango zuen eta Lesmesek aita mantendu



Mari Karmen San Sebastian, Mikel eta Lesmes Belaunzaran.

eta zainduko beharko zuen eta bere hiletako gastuak ordaindu. Ezkontza itunean aipatzen da Lesmesen 3 arrebek dotea jaso dutela (dirua eta arrea). Historian zehar baserria bere osotasunean seme edo alaba bakar bati ematearen arrazoia zera izanda: baserria baliabide mugatuak eskeintzen dituen unitatea da, lursail txikikoa eta nekazarien biziraupena ziurtatzeko beharrezkoa izan da etxaldea ez zatitzea.

GAUR EGUNGO KONTUAK

Lesmes Belaunzaran Armendariz lehen aipaturiko Lesmes eta Teresaren biloba da. Bera oso umea zela, aitona-amonak Iriarte etxera jaitsi ziren bizitzera. Berak Usarren eman du bizi osoa eta ez du handik ateratzeko asmorik:

“Han hazi nintzen Alberto eta Miren gurasoekin eta nire 10 senideekin. Garai hartan Usarrek 25 hektarea zituen, 15 inguru soro eta belardiak ziren eta besteak zuhaitziak:



Lesmesen txerritegi

haritzak, gaztainak, sagarrak, gereziak. Martinsok 7'5 hektarea inguru zituen. Ukuiluan 7 behi, 2 idi, 3 edo 4 letxon eta oilo batzuk genituen. Lana galanki egin behar familia aurrera ateratzeko. Soroetan, artoa, urte guztian jateko babarruna eta garia ere dezente egiten genuen. Txekor batzuk hazten genituen, neguan baso egurra ateratzen zen, eta udan gerezi asko saltzen zen, 100 bat arbola bagenituen. Orduko makinaria idi pareta, sega, goldea, aitzurra eta antzeko lanabesak izaten ziren.

Aita gazterik hil zitzaigun eta ni geratu nintzen etxerako. Duela 41 urte inguru, anaia Xanti eta biok 46 zerrama jarri genituen Martinson. Txerrikumeak 2 hilabetekin, 20 kilokoak, ganadu tratanteei saltzen genizkien, Leridara eramaten zituzten.

Txerritegiarekin aparte, etxean 12 behi esnetakoak genituen eta gereziekin ere segitzen genuen. Duela 25 urte inguru, apirilak 20 edo 21 zen, izotz handia egin zuen eta loretan zeuden gerezondoak galdu zituen. Orduan bukatu ziren Berrobiko gerezien kontuak.

Txerriekin hasi eta 6 urtera Xantik utzi egin zuen eta nere emaztea Mari Karmen eta biok segitu genuen. Txerriak gizendu eta 7 hilabetekin, 100-110 kilokoak harategiata-

ra saltzen hasi ginen. Askoz ere lan gehiago zen, bezeroak bilatu, txerriak banatu, fakturak egin... Morroi bat ere bagenuen.

1998an granja berria egin genuen Martinsoren ondoren, txerri gehiago, lan gehiago, makinaria berria erosi, gastu handietan sartu ginen".

Urte guzti hauetan baserri inguruan beste baserri batzuen lursailak ere erosi dituzte eta orain Usarrek lehen baino 5 hektarea gehiago ditu. Paisaia ere aldatzen joan da, zuhaitzak gutxitzen eta pinuak ugaritzen. Belardietan 40 larreko behi dabilta. Tontola Gorako sail batzuk ere erabiltzen dituzte. "Ni behi zalegoa naiz baina txerriak errentagarrigoak dira" dio Lesmesek. Gustora dago egin duen ibilbidearekin, ez luke ezer aldatuko.

Mikel Belaunzaran San Sebastian da Lesmes eta Mari Karmenen 6 seme-alabetatik gurasoen lanbidea jarraitu duen bakarra:

"Ikasteko gogo handirik ez nuen eta baserriko lanak gustoko nituen, beraz bidea garbi neukan. Ikasteko afiziorik ez izan arren, hainbat ikastaro egin behar izan ditut txerritegia kudeatzeko: txerriei buruzkoak, informatika, mekanizazioa, etab.



Mikel Porc d'oroko sarietako bat jasotzen.

140 zerrama ditugu orain, bakoitzak urtean 2 umealdi egiten ditu. Lana oso automatizatua dago baino hala ere, egunero granjara joan beharra dago, umea egiteko dadudena zaintzeko etab. Gustora nago, lana nere erara antolatzen dut, kanpoan lan egitea gustatzen zait eta gainera ez da lan aspergarria, era askotako eginkizunak ditut eta.

2013an inbertsio handia egin behar izan genuen. Lehen zerramak kaiolatan egoten ziren (beraien artean oso agresiboak dira), baina orain animalien ongizatea babesten duen legeak libre edukitzea derrigortzen du eta lege horretara egokitzeko obrak egin genituen. Laister batean, berriro zentzu horretan beste inbertsio bat egin beharko dugu”.

Harategiak dira orokorrean bere bezeroak baina badi-tuzte beste bi berezi xamarak: bata Felix, Mikelen anaia,


bere Iriarte jatetxeko jaki preziatunetako Usarreko txerrikumea baita. Bestea, Donostia Ospitalea, duela 8 urtez geroztik urtean 100 txerri 2 hilabete ingurukoak erosten dizkiete bere ikerketa lanetarako.

Mikel ez da baserrian bizi: “nik nahiago dut kaletxean bizi, bizimodu erosoagoa da eta gainera deskonektatzen laguntzen dit”.

PORC D'OR SARIAK

1994an Espainiar Estatuko txerri haztegien lana baloratzeke eta bultzatzeko sortutako sari hauetan parte hartzeke behin baino gehiagotan hautatua izan da Lesmesen txerriegia eta sari batzuk ere lortu ditu. Denetara, 6 brontzezko, 2 zilarrezko, urrezko bat eta hainbat diploma eskuratu dituzte usarretarrak.

LESMES BELAUNZARAN TXERRI ABELTZANTZA



Usarre baserria

☎ 943 683 193

BERROBI

“EVEREST: HERRI OSO BAT GAILURREAN”

Azaroaren bukaera aldera aurkeztu dute Ramon Olasagastik egindako gidoiaz eta Cesar Llagunoren marrazkiez osatutako komikia.



Mendi Film Festibalek sortutako proiektua eta SUA edizioak argialetxeak plazaratu duten lana da. Komikiaren aurkezpena 11. Mendi Film Festibaleko atariko gisan egin zuten. Bineta esanguratsuenekin ere erakusketa egin dute.

1980ko maiatzaren 14an iritsi zen lehendabiziko aldiz euskaldun bat munduko mendi altuenaren gailurrera. Espedizioa eta lagun izan zituzten sherpen ahalegina kontatzen du komikiak. Nahiz eta gailurra lortu ez eta bigarrenaren aurrekaria izan zen 1974ko Tximist espedizio sonatua ere aintzat hartu da kontaketan.

RAMON OLASAGASTI LIZARDI SARIA



Ramon Olasagasti herritarrak bigarren aldiz jaso du Lizardi Saria. Lehena 2014. urtean “Sugaar” lanarekin irabazi zuen eta bigarrena, 2017. urtean “Sasiolako erroteria” lanarekin. Sari banaketa 2018ko apirilaren 23an izan zen eta liburua Erein argialetxeak argitaratu zuen.

Bejondeizula Ramon!

Aurtengoa XVI. edizioa izan da.

36 parte-hartzaile eta beste hainbeste lan aurkeztu dira. Sariak Kulturaldiaren egitarauaren baitan banatu dira eta aurtengo lehenengo aldiz, azokaren egunean plazan izan zen ekitaldia.

Hauek dira egileak eta lanak.

1.KATEGORIA (LH 1-2)

Irabazlea: Joane Mihura “Patataman”

Aipamena: Beñat Lizardi “Baserritar bat karate egiten”.

2.KATEGORIA (LH 3-4)

Irabazlea: Intza Egues “Munstro borobilak, gnomoak eta neskaxa”.

Aipamena: Aixa Agirretxe “Bahitzaileak Japonian”.

3.KATEGORIA (LH 5-6)

Irabazlea: June Jimenez “Bizitzaren aldaketak”.

Aipamena: Eñaut Etxenagusia “Suharren abenturak”.

LITERATUR LEHIAKETA



OIHANE VERGARA

Urriaren 24 eta 25ean EHU/UPVn I. Ikasleen Biltzarra egin zen. Bertan mundua eraldatzeko gradu-ondoko amaierako lan onenak aurkeztu ziren. Oihanek, bere lana aurkeztu zuen saileko 2. saria irabazi zuen "Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko politika publikoen ebaluagarritasuna termino kriminologikoetan" lanarekin. Bejoindezula!




V. ARGAZKI RALLYA

Aurtengo gaia
"arkitektura" izan da

IRABAZLEAK

Garazi Goenaga helduen mailan,
"Saretzen" argazkiarekin.

Nora Jimenez gazteen mailan,
"Argia sartzen" argazkiarekin.



XXVIII. KULTURALDIA

Maiatzaren 4etik 31era luzatu zen aurtengo kulturaldia. Herriko elkarte eta talde ezberdinek elkarlanean prestatu zuten egitaraua izan zen. Lehen egunetan hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izan zuten berrobitarrek: V. Argazki Rallya, "Emotioa" taldearen eskutik "Udaberri gau baterako musika" saio hunkigarria, gurasoei zuzendutako "Autokontrola eta autoestimua garrantzia" saioa, Iñaki Perurenaren hitzaldi aberasgarria edota San Isidro eguna ospatzeko afaria besteak beste. Gainera, azken txanparako antolatu ziren gaztetxoentzat antolatutako ping-pong eta pilota partidak, VII. Udaberriko Azoka bi biolin joleen musika goxoaz girotua, Argazki Rallyko eta Literatur Lehiaketako sari banaketa, Eskolako estalpean Berrobin ekoiztutako produktuekin prestatutako bazkaria, dantzariak, ipuin kontaketa, jubilatuen irteera, eskolako ikasleen emanaldia, eta amaitzeko, gaztetxoaren gimnasia, judo eta zirkoko ikuskizuna.

LIBURUTEGIA PLAZAN



Liburutegia plazara atera zen Kulturaldiko Azoka egunean erabiltzen ez ziren liburuak jendeari oparitzeko asmoz. "Kultur oparia" deitu zioten egitasmoari.

Mahai luze-luze baten gainean liburu ugari jarri ziren jendearen eskuragarri haur zein helduentzat. Denetarik 250 ale oparitu ziren. Bertaratutakoak gustura hartu zuten ekimena. Datorren urtean ere hortxe izango direla agindu dute, liburu asko omen dago eta.



IKASTURTEKO PROIEKTUA: TAMAINAK

2017-2018 ikasturtean eskola komunitate guztiak ikasturte osoko proiektua aurkeztu zuten. Horretarako "Tamainak" proiektuaren inguruan aritu ziren ikasturte osoan zehar.

Hiru tamaina planteatu zituzten, bakoitza hiruhileko batean:

- Handia
- Ertaina
- Txikia

LEHEN HIRUHILEKOAN: HANDIA

Hiruhileko honetan beste eskolekin, Aduna eta Alkizakoekin, egin zuten lan. Iruñeara joan ziren txangoan Planetariuma bisitatzera hiruhilekoari hasiera emateko.

Unibertsoa aberatsa, handia, amaiezina, egunerokoa, zientziarekin lotuta, eta aurkikuntzaz betetako gaia da. Txiki-txikiak direnetik, umeei asko interesatzen zaien gaia da.

Eskola osoak hiruhileko hau Unibertsoan zehar bidaia-tzen pasa zuten. Azken xedea gurasoen aurreko hitzaldia izan zen, ikasitako gauza guztiakin. Bukaeran guraso eta herriko jendeari eskainitako saioa esteka honetan ikus daiteke:

<https://www.youtube.com/watch?v=s2flGWWohbg&feature=youtu.be>

Euskara, gaztelania, ingelesa, natur-zientziak eta gizarte-zientziak eta matematika landu zituzten.

Beste eskolekin batera blog bat egin zuten Unibertsoari buruz. <http://adunaalkizaberrobiigeldo.blogspot.com/>

Gela desberdinetan egindako lanak beste geletan azaldu zituzten, "besteek guregandik ikasteko, eta guk besteengandik". Eskola osoa informazioa ematen eta jasotzen aritu ziren. Horretarako tresna paregabea izan zen eskolako irratia. Astero ume guztiak, txandaka, megafoniaren bidez olerkiak, abestiak, albisteak, asmakizunak... eskaini zituzten eskola guztiak entzuteko moduan.

BIGARREN HIRUHILEKOAN: TXIKIA

Hiruhileko honetan tamaina Ertaina lantzeko asmoa bazuten ere, irakasle aldaketagatik erabaki zuten tamaina Txikia hiruhileko honetan lantzea.

Eskua baino txikiagoa denetik ateratzen da bizitza. Naturan murgildu ginen: animalia txikiak, arrautzak, xomorrorak, intsektuak, ernalketa, ugalketa, landareak, haziak, bizitzaren hasiera, landareen fotosintesia ... horien ezagueran sakondu zuten.

Txikitasunaren errespetua izan zen lanaren helburua. Hiruhileko honetan landutakoa sarrera izan zen hirugarren hiruhilekoan Agenda 21ean landutako Klima Aldaketa gairako.

HIRUGARREN HIRUHILEKOAN: ERTAINA

Hiruhileko honetan pauso bat aurrerago egin nahian, saiatu ziren ume bakoitzak bere interesetatik abiatuta lan txiki batzuk egitea. Hau bi modu desberdinetan egin genuen:

1. Aztertzea: Ikasle bakoitzak bere interesetatik abiatuta hitzaldi txiki bat prestatu zuen, nahi zuen gaiaren inguruan besteei azaltzeko.

2. Egitea: Hiruhilekoan zehar hiru tailer jarri zituzten mar-txan gelak nahastuta bai HHn eta bai LHn. Helburua ekoiz-tea izan zen. Tailerrak hauek izan ziren:

- 1. Sukaldaritza.** Plater desberdinak prestatu zituzten ikasleen interesetatik abiatuta. Tailer hau errezeta lan-tzeko aprobetxatu zuten.
- 2. Joskintza.** Ikasle bakoitzak berak nahi zuen proiektua eraman zuen aurrera. Bakoitzak objektu bat josi zuen hasieratik bukaeraraino.
- 3. Telebista.** Bideo eta ekoizpen txikiak egin zituzten tal-deka.

Horrez gain:

- Irteerak: Bilbora, Txiki Parkera, Barriara, Tolosara txontxon-giloak ikustera, Orkestra sinfonikoa ikustera, Ataria irratarra, herrian barrena...
- Eguberritan kantatzera atera ziren urtero bezala
- Baratzean aritu eta uzta jaso ...
- Bisitak jaso: Kike Amonarriz, Iñaki Mezkitia...



- Ostegun gizenean dantza, jolasak...
- Gaztainak erre eta jan.
- eta askoz gehiago:
www.berrobikoeskola.blogspot.com

AHLSTROM-MUNKSJÖ PAPER, S. A.
Eldua
20492 Berasfegi (Gipuzkoa)
Tel.: +34 943 683 032
www.ahlstrommunksjo.com

 AHLSTROM
MUNKSJÖ

HERRIKO JAIAK



SAN AGUSTINAK

Abuztuaren 24tik 28ra festa giroan ibili ziren berrobitarrak. Egitarauari hasiera emateko mendi-bizikleta ibilaldi osasuntsua, altxorraren bila jolasa segidan eta Guraso-Elkartearen eskutik txupinazoa, buruhandiak eta indarrak berreskuratzekeo pintxo-poteoa, herri afaria eta ondoren Oxabi Taldearekin dantza saioa izan ziren. Hurrengo egunean abentura jarduerak, paella lehiaketa eta koadrilen arteko bazkaria, DJ Porru arratsaldean eta DJ Josu Rodriguez gauerdian eta eguna agurtzeko "Zoom-Zumba" saioaren aurretik "Bakeroen" mozorro lehiaketa. Igandean meza ondoren herri kirolak eta Mikel Marquez-en emanaldia arratsaldean eta eguna bukatzeko Eromerian taldeak jarri zuten festa giroa. San Agustin egunean haurrentzat jolasak, apar festa, toka txapelketa, jubilatuentzat hamaiketakoa, bingoa, dantzaldia eta opariak eta arratsaldea ere bete-betea jolas eta zaldi paseo eta abarrekin. Pilota partidak eta Puro Relajoren mariatxi doinu gustagarriak eman zioten bukaera gauari. Eta egitarau bete hau amaitzeko meza eta trikiritxa txapelketa San Agustin eguerdian. Sagardo probaketa, Izer eta Alabierrek girotutakoa eta ondoren zahagi ardoa Hugo Silveiraren konpainian eman zioten bukaera aurtengo festei.



SAN ANDRESAK

Azaroak 30 eta abenduak 8 bitartean aurten ere ekintza ugari antolatu dira San Andres eta Euskararen Egunaren inguruan. Egitarauan hauexek azaltzen dira: Tremes ogiaren banaketa, Jubilatuen bazkaria Solastoki tabernan, Eskolak sustatutako "Berrobi kantari" ekimena, buruhandiak, txokolate beroa, oilasko errea eta babarrun jana Begi-Urdin Gaztegunean, elektrotxaranga, "Azken Sustriak" taldearen kontzertua, Trakamatraka ikuskizun musikala, karta jokua, zahagi ardoa eta DJ Aremikel Begi-Urdin Gaztegunean, mendi ibilaldia, talo jana, erromeria, Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketako partidak, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Ahoa bizi, belarria prest" dantza, Dantza Oh! Kea euskarari keinua eginez... Bada zerbait!

Ikasleak idazle

Hemen dituzue aurtengo ikasleen lanak. Lehiaketan adina kontutan hartuz hiru maila daudenez leiho honetan ere horrelaxe agertzen dira. Joane Mihura, Intza Egues eta June Jimenez dira gure idazleak.

Munstro borobilak, Gnomoak eta neskatxa

Orain dela 500 urte Frankesteinen etxean zazpi gnomo bizi ziren, baina bat lapurtu egin zuten. Urte batzuk beranduago Ilargi izeneko neskatxa bat eta bere amak Frankesteinen etxea erosi zuten. Ilargik ile motza eta marroia zuen, sudur txikia, begi ertainak eta berde kolorekoak. Aho txikia zuen eta bekainak ez oso luzeak. Argala eta altua zen.

Ilargi eskola askotan ibilita zegoen eta ohituta zegoen beste etxetara joatea. Behin eskolara Joan aurretik goiko pisura igo zen, eta sei gnomo ikusi zituen geldirik. Neskak buelta ematen zuenean geldirik zeuden gnomoek pauso bat ematen zuten. Ondoren, neskak korrika joan zen bere amarengana, amak deitu baitzion.

– Ilargi, eskolara joateko ordua da. Zoaz, berandu iritsiko zara bes-tela! –esan zion amak.

– Bai, ama. Estutxea hartu eta oraintxe joango naiz –erantzun zion umeak oihukatuz.

Umea estutxea hartu eta eskolara abiatu zen. Eskolan mutil bat ezagutu zuen oso aspergarria zena. Beste bat ere ezagutu zuen, guapoa, kirolaria, indartsua eta azkarra zena.

Neska etxera itzuli zenean, espagetiak tomate eta saltxitxarekin, oilaskoa eta postretarako mandarina izoztua zuen bazkaltzeko. Bazkaldu ondoren, bere gelara joan zen etxekolanak egitera eta soinu arraro bat entzun zuen.

– Zer da soinu hori ama? –galdetu zion umeak amari.

– Iturgina etorri da, ur hotza etortzen delako dutxara- erantzun zion amak.


– Bale.

Umeak etxekolanak egiten jarraitu zuen eta beste soinu arraro bat entzun zuen:

– Ama, zer soinu da hori? –galdetu zuen umeak berriz ere.

Amak ez zuen erantzun eta bat-batean 6 gnomoak atera ziren:

– Kontuz, neska! Munstro borobilak dira. Gure ezkutalekura etorri behar duzu, zure ama ere hor dago. Lasai, hor inork ez gaitu hilko



baina kanpoan egoten bazara seguruena hilko zaituztela – esan zuen Luis izena zuen gnomo zaharrenak.

– Zer? Nor zarete zuek nire ama hartzeko? Eta zergatik nahi didazue zuen leku sekretura eraman? – galdetu zuen umeak.

– Zer nahiago duzu hil ala bizirik egon leku sekretu batean janari pila batekin? Gainera, gure leku sekretutik irten ahal gara kanpora eta eskolara joan ere bai.

– Ba ez dakit, nahiago dudalako hilda egon mutil aspergarri horrekin eg...

– Kontuz, munstro bat! Zoaz beste gnomoen atzera! –esan zuen Luisek. Ondoren, azelga purezko hiru tiro bota zizkion munstro bati.

– Zertarako da hori? –galdetu zuen neskak.

– Munstroak hiltzeko dira, horrela inor ez hilko.

– Jose, Mikel eta Markel joan zaitetze hiltzen gora datozen munstroak eta saiatu behekoak ere hiltzen, mesede! –erantzun zuen Luisek.

–Neska, emaiozu kolpe bat paretari leku sekretuko atea zabaltzeko eta sartu bizkor! Hor barruan dago zure ama eta hori da gure leku sekretua!

– Jose, Mikel eta Markel sartu azkar!

Halako batean atea itxi egin zen eta amari eta umeari plana erakutsi zioten:

– Gu leihotik aterako gara. Mikel eta Jose behera jaitsiko dira, soka gora botako dute eta jaitsi egingo zara zu eskolara joateko.

Ama jaisten lehenengoa izan zen, umea bigarrena eta beste gnomo guztiak sokatik beherantz joan ziren. Umea eskolara joan zen amarekin autoan. Gnomoak, aldiz, geldirik gelditu ziren ume bat atera zelako bere etxetik. Ume hori Ilargiak eskolan ezagututako mutil aspergarria zen:

– Kaixo lagun, zer moduz zaude? Ahal dut zurekin eskolara joan zure amaren autoan? – galdetu zuen mutilak.

–Ez!! – esan zuen neskak oihuka.

– Zergatik ez, ilargi? Gurekin etor daiteke, bi eserleku daude sobe-
ran –esan zuen amak.

– Ama, hau ez da niri gustatzen zaidan mutila.

– Beno, azkar! Sartu Ilargi! Zu ez zaitez sartu, nire alabak dentistara joan behar du eta.

– Bale. Arratsaldean ikusiko gara lagun.

– Ez naiz zure laguna!!!

Ilargi amarekin dentistara joan zen:

– Kaixo, ordua hartu genuen goizeko 10:00etan –esan zuen amak.

– Zeinen izena hartu duzue? – galdetu zuen harrerakoak.

– Mariren izenean hartu nuen.

– Bai hemen dago. Itxaron pixka eta zure izena esaten dutenean sartu gelara.

– Bale.

Ama eta umea itxaroteko gelara sartu ziren eta umeak berari gus-
tatzen zitzaion mutila ikusi zuen; guapoa, listoa, indartsua, kirola-
ria... zena. Eserleku batean eseri zen eta bere ama bere ondoan ja-
rri zen:

– Ama ikusten duzu mutiko hori? Niri gustatzen zaidan mutila da-
esan zuen umeak.

– Bai. Oso guapoa da zuretzat! –esan zuen amak.

– Ama lotsatu egiten nauzu.

– Barkatu, barkatu ume, baina hala da.

– Ama...

– Bale, isildu naiz.

Ama isildu egin zen eta bat-batean, Ilargiren izena entzun zen.

– Zure txanda iritsi da. Zurekin joatea nahi al duzu minik ez egite-
ko? – galdetu zion amak.

– Ez ama, ume handia naiz eta ez txikia, bale? –erantzun zion umeak.

– Zoaz azkar, joan egingo da eta.

Umea gela batera sartu zen eta han mutil bat eta neska bat zeu-
den, biak dentistak ziren, alegia.

– Ireki ahoa ahal duzun zabalean zure hortzak ikusteko baina ez
gehiegi, min har dezakezu eta – esan zuen dentistak.

Umeak ahoa ahal zuen zabalena ireki zuen, baina ez zuen minik
hartu. Dentistak eskularruak jantzi zituen, gero linterna hartu eta
bere ahoa behatzen hasi zen. Ondoren, tresna bat hartu zuen eta
hortzak ikusten hasi zen. Tresna mahai gainean jarri zuen eta beste
tresna bat hartu zuen. Gero, Ilargiaren ahoan sartu zuen eta hagin
baten gainean jarri eta piztu egin zuen. Bi minutuz egon zen horre-
la. Plastilinarekin antzeko zerbait jarri zion haginean:

– Oso ondo, Ilargi! Denek negar egiten dute, zu eta mutil bat izan
ezik – esan zuen dentistak.

– Eskerrik asko –esan zion Ilargik dentistari.

– Opari bat dut zuretzat, piruleta bat da ausarta izateagatik, baina
bazkaldu ondoren jar beharko duzu.

– Hortzak garbitu behar ditut.

– Bai, baina orain hortzak enjuagatu bestela usain txarra edukiko
duzu.

Umea gelatik atera zen eta amarekin autorantz abiatu zen eta gero
eskolara joan ziren. Bazkaltzeko ordua zen eta etxera joan ziren. Iri-
tsi zirenean amak atea ireki behar zuen baina ...

– Ama, munstro borobilak daude! – esan zuen umeak.

– Arrazoi duzu! –erantzun zuen amak.

Eta bat-batean 6 gnomoak atera ziren eta sokatik gora igo ziren
munstro borobilak bazekitelako han zeudela. Denak gorantz abia-
tu ziren, baina ume aspergarria soka azpitik pasa zen. Ez zen kontu-
ratu sokatik gora igotzen ari zirela eta denak gora iritsi zirenean
susto ederra hartu zuten, gnomo bat munstro borobil batez mozo-
rrotu zelako. Azkenean gnomo guztiak, amak eta neskakak mun-
stro borobil guztiak hil zituzten eta ate guztiak ixtea lortu zuten. Ate
guztiak ixtean 7.gnomoa aurkitu zuten.

Hortik aurrera munstroak ez ziren berriro atera eta amak txakur bat
erosi zion umeari bere urtebetetzean eta azkenean ere mutil gua-
poa, kirolaria, indartsua, listoa... zena bere mutil laguna bihurtu
zen. Ez ziren berriro herriz aldatu, poz-ozik zeudelako Frankeins-
teinen etxean. Eskolako ospetsuena bihurtu zen neskak eta bere
lagunekin hirira joaten ziren afaltzera eta arropa erostera.

... eta hala bazan ta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila
Berrobiko plazan.

Intza Egues

Patataman.

Aspaldi aspaldi bazen patatak bizi ziren mundu bat Patatolius
izenekoa. Patata bat Patataman deitzen zen. Hegan egiten
zuen eta galtzontzilloak eta kapa bat zituen.

Egun batean Patataman herrira atera zen eta ateratakoan zo-
morro gaitzo bat ikusi zuen.

Beltza eta txuria zen. Patatak jaten zituen. Patataman borrokara
joan zen. Borrokan beraiek bakarrik zeuden beste patatak
etxean zeudelako. Borroka kale batean izan zen. Patataman bo-
rroka eta gero nekatuta geratu zen. Patatamanek irabazi zuen,
eta oso pozik bizi izan ziren.

Katu katu ipuin hau bukatu!

Joane Mihura

Bizitzaren aldaketak



Afrikako herrixka pobre batean Baba eta bere familia bizi ziren, hau da: ama, aita, anai txikia, ainai handia eta Baba. Babak 15 urte zituen. Altua, beltzarana, argala, arina, alaia, oso txintxo, eta super bizkorra zen. Babaren ametsa atleta izatea zen.

Baba oso bizkorra zen, baina justu-justu Joan zen eskolara baina bi hilabete besterik ez zen joan bere gurasoak ez zutelako diru gehiago. Eskolan idazten, irakurtzen, gehiketak eta kenketak egiten eta wolofez ondo hitz egiten.

Egunero bere amarekin platano plantazio batera joaten zen egunsentitik ilunabarra arte. Platano landaketa horretatik bere etxera ordu erdiko bidaia egin behar izaten zuten egunero.

Baba egun batean platano landaketatik itzuli zenean maleta prestatzen hasi zen eta bere anai txikiak ikusi egin zuen eta galdera hau egin zion:

– Baba, zer zabilta maleta horrekin?

– Lasai, ez nago ezer egiten. Jarraitu lotan!- erantzun zion Babak.

Maleta prest zeukanean bere familiari honelako oharra idatzi zion:

Kaixo!

Ama eta aita maiteak, ohar hau idazten dizuet zuek jakiteko etxetik joan naizela nire ametsa bete ahal izateko. Zuek lasai egon, ez zarete nitaz kezkatu behar, ondo egongo naiz eta. Zuek zuen eguneroko bizitza egiten segi. Astero gutun bat bidaliko dizuet nola nagoen esanez. Laster jakingo duzue nitaz.

Adeitasunez!

Baba

Bere ametsa bete ahal izateko Tolosara joan behar zuen baino ezin zuen gidatu ez zeukalako kotxerik ez gidabaimenik. Orduan itsasontzian, trenetan eta zati batzuk oinez egin beharko zituen. Baina arazo bat zuen, ez zuela dirurik. Bi neurona gastau ondoren gauza bat bururatu zitzaion: Edozein garraiobideetan joan behar zuen ezkutatuturik. Bere etxetik atera zenean gaua zeneta ez zekien non zebilen, baina segituan konturatu zen nun zegoen. Treneko geltokitik 5 kilometrotara zegoen. 5 kilometro horiek oinez egin zituen eta azkenean treneko geltokira iritsi zen. Trenetan bahiak eramaten zituzten bagoian sartu behar zuen. Behiak ateratzen ari zirenean Baba zirrikitu batetik sartu zen inork ikusi gabe, eta hortxe joan zen trenaren barruan kakaz inguratuta, usain txar hori usaintzen. Baina Tolosara iritsi ahal izateko egin beharra zuen. Gose asko pasa zuen.

Itsasontzian garraiatu

ahal izateko baina inork ikusi

gabe, platano kaxa batean sartu

behar zuen. Itsasontzian platano usain goxoa usaintzen joan zen bidaia guztian zehar. Kaxan bero asko pasa zuen, baina berdin zitzaion, bere etxean baina bero gutxiago pasa zuen eta. Goseari ezin izan zion eutsi eta platano pare bat jan zituen bidaian zehar. Tolosara iritsi ostera sei hilabete pasa ziren bere etxetik atera zenetik.

Tolosan gauza asko nahi zituen ikusi, baina lehen-lehena atletismoko pista zen. Pistanlerantz zihoan bitartean jendeak oso arraro begiratzen zion. Azkenik, iritsi zen nahi zuen tokira. Pentsatzen zuen inoiz ez zela hor barruan korrika egiten egongo. Ateak itxita zeudelako eta sarrera ordaindu egin behar zelako. Bat-batean Mikel izeneko mutiko batek bizkarra ukitu zion eta hau esan zion:

– Zu ere ametsetan al zabilta atletismoko pistarekin?

Mikelek hurrengo egunean atletismoko klasea zuen eta Baba bakarrik ez uzteagatik bere etxean inork gabe aspertzen, bera ere apuntatu zuen atletismoko klaseetara. Hurrengo arratsaldean biak oso pozik eta oso azkar atletismoko pista aldera abiatu ziren arratsaldeko lauetan.

Baba oso azkarra zen baina ez zekien bere potentzia ondo kontrolatzen. Babak eta Mikelek lau ordu entrenatzen pasa zituzten egunero eta horrela bi urte igaro ziren arte.

Baba oso ondo bizi zen Tolosan baina bere familiak asko gogoratzen zen, goizero, arratsaldero, gauero eta egunero... Bi urte horiek igarotakoan olinpiadetara joan zen eta bigarren postuan geratu zen baina berari iruditu zitzaion bigarren postua ez zela gehiegi izango bere familia Tolosara ekarri ahal izateko. Hala ere saiatzen segitu zue nortu zuen arte. Hurrengoan berri ere olinpiadetara joan zen eta orduan bai, lehen postuan geratu zen.

Babak lortu zuen diruarekin etxe handi bat erosi zuen bere familia Tolosara ekarri ahal izateko. Hiru egun pasa ziren eta Babari bizitza perfektua zuela iruditzen zitzaion: Tolosan bizi zen bere familiarekin, olinpiadak irabazi zituen, bere anai txikia eskolara joaten zen... Berdin zitzaion txikia zenean bere bizitza ez zela oso ona izan baina asko poztu zuen bere bizitza hobea goiago izango zuelako.

Baba oso pozik bizi izan zen hurrengo urteetan!

June Jimenez



BERROBIKO UDALA
Euskara eta Kulturarekin